Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

# Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen** argazkiak, **herriz herri**

## **Donostia**, 1960-2010

(Bigarren edizioa)

**2016ko azaroa**


EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Oroitzapenezko ekintzak eta
biktimen aitortza sustatzen
laguntzeko udalei eskaintzen
zaien agiri informatiboa

---

# Euskal kasuan izandako **bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen** argazkiak, **herriz herri**

---

## **Donostia**, 1960-2010

Bigarren edizioa


**2016ko azaroa**

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

---

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

**PRESIDENCIA**
Secretaria General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Victimas y Derechos Humanos

# Aurkibidea


Aurkezpena. 6

**I.** Bizitzeko eskubidearen **urraketak**. **9**

1. ETA, ETApm, ETAm eta Komando Autonomoek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 11
2. ATE, BVE, GAL eta GAEk bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 119
3. Segurtasun-indarrek bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak. 125
4. Egiletza argitu gabe duten urraketak eta bestelakoak. 139

**II.** Behar beste argitu ez diren **kasuak**. **147**

Erabilitako iturri eta zerrendak. 152

# Aurkezpena

2015eko irailaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak jendaurrean aurkeztu zituen “Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri (1960-2010)” izeneko dokumentuak. Guztira, 130 liburuxka dira, beste horrenbeste udalerri buruzkoak. Ekitaldia egin zen Gogora – Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan, Iñigo Urkullu buru zela, eta, han, liburuxka hauek banatu zitzaizkien alkateei.

*Erretratu* bakoitzak 1960 eta 2010 bitartean herri bakoitzean gertatu diren indarkeriazko heriotzen inguruan dagoen informazioa ematen du; betiere euskal kasuarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen heriotzei buruzkoa. Helburua da memoriari buruzko udal-politika sustatzeko informazioa ematea, eta biktimengana eta haien senitartekoengana hurbiltzea. Egia esan, berehalakoan nabaritu zen dokumentu horiek udalen esku utzi izanaren eragina. Izan ere, 2014arekin alderatuta, laukoiztu egin zen 2015eko azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatu zuten udalen kopurua.

Lehen edizio haren aurkezpenean argi adierazi zenez, bildutako kasuetatik gehienetan, dagoen informazioa bat dator eta nahikoa da. Dena den, kasu batzuei buruz, batez ere hirurogeiko hamarkadan, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkada oso hasita zegoen arte izandakoetan, ez dago nahikoa informaziorik edo bertsio kontraesankorrak eta datu nahasgarriak agertzen dira; horrenbestez, oraindik ezin da azken ondorioa atera. Alde horretatik, beraz, azpimarratu zen lan hori ezin zela behin betiko amaitutzat eman, eta zabalik zegoela osatuz joateko.

Aurkezpena egin zenetik, ekarpen eta kontsulta ugari egin dituzte eraginpekoek, udalek zein herritarrek. Eta ohar horiei esker, asko hobetu da hasierako dokumentua. Hala, hartutako konpromisoa garaiz bete ahal izan da, eta prest da bigarren edizioa: 2016ko azarotik, udalen esku da, eta herritarrek ere eskura dezakete Gogoraren eta Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiaren weguneetan.

Data horretatik aurrera eta bi webgune horietan, beste informazio-gune bat ireki da, “Aitortutako biktimak” izenburupean: informazio zehatza ematen du lege-arau baten babesean errekonozitu diren biktimei buruz. Terrorismoaren biktimei dagokienez, 1960tik aitortutako kasuak biltzen ditu, biktimei erreparazioa egiteko onartu diren legeak oinarritzat hartuta: 29/2011 Legea, 32/1999 Legea (Estatuko araudia) eta 4/2008 Legea (araudi autonomikoa). Funtzionario publikoek bizitzeko eskubidea urratu dieten biktimei dagokienez, 107/2012 Dekretuak aitortutako kasuak jaso dira, 1960tik 1978ra bitartekoak.

*Aitortutako biktima* horiez gain, badira aitortzeke dauden biktimak ere. Horietako asko datozen urteotan uztailaren 28ko 12/2016 Legea garatu zain daude: Eusko Legebiltzarrean onartu berri da, Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko. Beste kasu batzuk, berriz, ez daude argi ikerketarik egin ez zelako, bertsio kontrajarriak daudelako, urraketak nork edo zergatik egin zituen argi ez dagoelako edo ebazpen judizialaren zain daudelako.

Puntu honetan, beraz, bi datu-baseak elkarren osagarri dira. “Aitortutako biktimak” izeneko gunean, lege baten babesean aitorpena jaso duten biktimei buruzko informazioa biltzen da. *Udal-erretratuak* ez dira biktimei errekonozimendu ofiziala emateko agiri ofizialak, informazioa ematekoak baino. Zerrenda horretan, aitortutako biktimei buruzko informazioa ematen da, batetik, eta prozedura judizial bidez edo lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez aitorpena jaso zain dauden biktimena ere bai, bestetik.

60/147 Ebazpena da nazioarteko zuzenbideak biktimei zuzendutako politikak egiteko duen bitartekorik garrantzitsuena; Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartu zuten, 2005ean. Ebazpen horren 9. artikuluan berariaz jasota dago pertsona bat biktimatzat hartuko dela, alde batera utzita kasua judizialki erabat argitu den ala ez. Horrela izan ez balitz, terrorismoaren edo bestelako indarkerien biktimak ezin izango lirateke biktimatzat hartu, baldin eta kasu horiek epaitu edo argitu gabe baleude, eta, ildo horretatik, ezin izango litzaieke erreparaziorik egin errekonozimendu-lege batek babestutako administrazio-egintza baten bidez.

Ez dira sartu *Udal Erretratu* hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...

Oinarri horien gainean, *Udal Erretratuak* egiteko, biktimei buruz argitaratuta dauden zerrenda guztiak aztertu dira: Barne Ministerioak, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, biktimen elkarteek, komunikabideek zein egile partikularrek egindakoak. Udalerri bakoitzeko liburuxkan sartu dira hala bere lur-eremuan izan diren biktimak, nola, ekintza bera beste nonbait gertatuta ere, herri horretakoak diren edo bertan bizi diren biktimak.

Bi ataletan egituratu da edukia: lehenengoan, bizitzeko eskubidearen urraketa nahikoa frogatutzat dagoen kasuak jasotzen dira, egileen eta hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuta. Bigarrenean, berriz, nahikoa argitu ez direla-eta kalifikazio hori behin betiko baietsitzat ezin eduki dezaketen kasuak biltzen dira.

EAEko udalek adierazitako behar batetik sortu zen lan hau; izan ere, memoria-ekitaldiak sustatzeko orduan, ez zuten nahikoa informazio udalerrian izandako biktimei buruz. Dokumentu honek tresna erabilgarria izan nahi du udal-arduradunek memoriari buruzko proiektuak egiteko orduan herriko informazio guztia eskura izan dezaten.

Azken batean, iraganean nozitutako terrorismoaren eta indarkeriaren aurrean memoria kritikoa bultzatzeko betebehar instituzionalari erantzutea da kontua. Biktimen oroimena bizirik iraunarazteko memoria, eta orainaldian eta etorkizunean giza eskubideekiko behin betiko konpromisoa helarazten duena, bereziki, bizitzeko eskubidearen eta pertsonen duintasunaren errespetuarekiko konpromisoa.

Garrantzitsua da argi izatea memoriaren politika publiko baten helburua ez dela *omenaldiak* egitea. Bi helburu nagusi ditu, eta zentzu sozial eta politiko sakonagoa dute helburu horiek: biktimei dagokienez, gertatutakoa gogoraraztea, jasan zuten bidegabekeria aitortzea, eta haienganako elkartasuna adieraztea beste behin ere, eta, gizarteari dagokionez, berriz, gogoeta kritikoa sustatzea iraganean gertatutakotik berriz ere gertatu behar ez duenaz hausnartzeko, edo, aitzitik, gertatutako horretatik azpimarratu behar denaz hausnartzeko.

Liburuxka hauetako bakoitza berriz ere gertatu behar ez duenaren eta ahaztu behar ez denaren erretratu da. Dokumentuaren izenburuan *erretratua* hitza jasotzen da, erretratuak gizakiaren irudia erakusten duelako; aurpegia, begiak eta espresioa dituelako. Erretratuak pertsona jakin bat irudikatzen du; izen, abizen, familia, lagun, istorio, amets eta proiektuak dituen pertsona jakin bat. Biktimen sufrimendu bidegabea hezurmamitzen duten aurpegien erretratua duzu dokumentu hau.

# **I.** Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

# **I.** Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

## 1. **ETA**, **ETApm**, **ETAm** eta **Komando Autonomoek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

# 1

# Jeronimo Vera Garcia

**Data:** 1974/10/29.

**Adina:** 45 urte.

**Non jaioa:** Fuente Alamo (Murtzia).

**Bizilekua:** 25 urte zeramatzan Donostian.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren sarjentua.

**Egilea:** ETApm.

**Heriotza-lekua:** Trintxerpe (Donostia eta Pasaia artean).

**Prozedura:** Tiroz, atxiloketa baten erdian.

**Datu gehigarriak:** Tiroketan, ETAko kide bat hil zen: Iñaki Iparragirre Aseginolaza, 18 urtekoa.

# 2

# Jose Diaz Linares

**Data:** 1975/03/29.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Vilella (Lugo).

**Bizilekua:** Intxaurrondo (Donostia).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Brigada Politiko eta Sozialeko inspektoreordea Donostian.

**Egilea:** ETApm.

**Heriotza-lekua:** Intxaurrondon (Donostia), bere etxetik gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 3

# Angel Berazadi Uribe

**Bahiketaren data:** 1976/03/18.

**Heriotza-data:** 1976/04/08, goizaldean.

**Adina:** 58 urte.

**Non jaioa:** Zarautz (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Intxaurrondo, Donostia.

**Seme-alabak:** Sei seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elgoibarko Sigma (Estarta y Ecenarro) enpresako zuzendari-kudeatzailea. EAJ alderditik gertu. Zarautz Kirol Elkarteko presidentea izan zen.

**Egilea:** ETApm.

**Heriotza-lekua:** Elgoibarko bere enpresatik irteten ari zela bahitu zuten, Bilbo-Behobia autopistaren sarbidean. Handik Itziarko Ipiola baserrira eraman zuten, eta 21 egun eman zituen bahiturik. Elgoibarko Azkarateko gainean hil zuten, Azkoitira doan errepidean, garondoan tiro bat jota.

**Prozedura:** Bahiketa eta estortsio-saiakera. Su-armaz hil zuten.

**Datu gehigarriak:** ETApm-k bahitu eta hildako lehen pertsona.

# 4

# Juan Maria Araluce Villar

**Data:** 1976/10/04.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Santurtzi (Bizkaia).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bederatzi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Notarioa. Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentea, Espainiako Erresumako kontseilaria eta Gorteetako prokuradorea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Askatasunaren Hiribidea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroz hil zituzten, halaber, Jose Maria Elicegui Diaz auto-gidaria eta Luis Francisco Sanz Flores, Antonio Palomo Perez eta Alfredo Garcia Gonzalez eskoltak.

# 5

# Jose Maria Elicegui Díez

**Data:** 1976/10/04.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea. Ezkontzekotan zen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen auto-gidaria.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Askatasunaren Hiribidea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroz hil zituzten, halaber, Foru Aldundiko presidente Juan Maria Araluce Villar eta Luis Francisco Sanz Flores, Antonio Palomo Perez eta Alfredo Garcia Gonzalez eskoltak.

# 6

# Luis Francisco Sanz Flores

**Data:** 1976/10/04.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Madril.

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Donostiar batekin ezkondu zen atentatua gertatu baino 15 egun lehenago.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen eskolta.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Askatasunaren Hiribidea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroz hil zituzten, halaber, Foru Aldundiko presidente Juan Maria Araluce Villar, Jose Maria Elicegui Diaz auto-gidaria, eta Antonio Palomo Perez eta Alfredo Garcia Gonzalez eskoltak.

# 7

# Antonio Palomo Perez

**Data:** 1976/10/04.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Osuna (Sevilla).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Armatuaren inspektoreordea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen eskolta.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Askatasunaren Hiribidea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroz hil zituzten, halaber, Foru Aldundiko presidente Juan Maria Araluce Villar, Jose Maria Elicegui Diaz auto-gidaria, eta Luis Francisco Sanz Flores eta Alfredo Garcia Gonzalez eskoltak.

# 8

# Alfredo Garcia Gonzalez

**Data:** 1976/10/04.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Lago de Babia (Leon).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Armatuko kidea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentearen eskolten autoaren gidaria.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Askatasunaren Hiribidea.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroz hil zituzten, halaber, Foru Aldundiko presidente Juan Maria Araluce Villar, Jose Maria Elicegui Diaz auto-gidaria, eta Luis Francisco Sanz Flores eta Antonio Palomo Perez eskoltak.

# 9

# Manuel Orcera de la Cruz

**Data:** 1977/05/18.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Úbeda (Jaén).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Alaba txiki bat. Emaztea haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Armatuko kidea.

**Egilea:** ETApm.

**Heriotza-lekua:** Amarako geltokia (Donostia).

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 10

# Juan Marcos Gonzalez

**Data:** 1978/05/09.

**Adina:** 20 urte.

**Non jaioa:** Llanes (Asturias).

**Destinoa:** Intxaurrondoko kuartela, Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Polloeko hilerritik Donostiako Intxaurrondoko kuartel ondoan patruilatzen ari zen Land Roverra tirokatu eta zauritu egin zuten. Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean hil zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Miguel Iñigo Blanco guardia zibila ere hil egin zuten.

# 11

# Miguel Iñigo Blanco

**Atentatuaren data:** 1978/05/09.

**Heriotza-data:** 1978/05/15.

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Holguera (Cáceres).

**Destinoa:** Intxaurrondoko kuartela, Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean. Egun batzuk lehenago, hilaren, 9an, tiroz zauritu zuten Intxaurrondon (Donostia).

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Juan Marcos Gonzalez guardia zibila ere hil egin zuten.

# 12

# Miguel Francisco Martin Gonzalez

**Data:** 1978/06/27.

**Adina:** 41 urte.

**Non jaioa:** Ávila.

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkondua, seme-alabarik gabe.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Armatuko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Poliziaren jeepa metrailatu zuten, Donostiako Bidebieta auzoaren eta Mirakruz gainaren artean patruilatzen ari zirela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste hiru polizia zauritu zituzten: Jose Grado Carro, Francisco Sanchez Arcos eta Jose Gutierrez Diaz.

# 13

# Lorenzo Soto Soto

**Data:** 1978/09/25.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Lorca (Murtzia).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere Land Roverrean, Donostiako fruta-azoka ondoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Jose Zafra Regil guardia zibila ere hil egin zuten.

# 14

# Jose Zafra Regil

**Data:** 1978/09/25.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Puigcerdá (Girona).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Seme bat. Arabar batekin ezkondua.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere Land Roverrean, Donostiako fruta-azoka ondoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Lorenzo Soto Soto guardia zibila ere hil egin zuten.

# 15

# Jose Maria Sarrais Llasera

**Data:** 1978/12/05.

**Adina:** 56 urte.

**Destinoa:** Errenteriako (Gipuzkoa) polizia-etxea.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia-komisarioa. Errenteriako polizia-etxeko komisario nagusia.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Amarako (Donostia) Urgull tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Hilik gertatu ziren, halaber, Gabriel Alonso Perejil komisariordea eta Angel Cruz Salcines udaltzaina.

# 16

# Gabriel Alonso Perejil

**Data:** 1978/12/05.

**Adina:** 61 urte.

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia-komisariordea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Amarako (Donostia) Urgull tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Hilik gertatu ziren, halaber, Jose Maria Sarrais Llasera komisarioa eta Angel Cruz Salcines udaltzaina.

# 17

# Angel Cruz Salcines

**Data:** 1978/12/05.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Santander.

**Bizilekua:** Pasaia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Pasaiako udaltzaina.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Arantzazuko Ama Ospitalera zeramatela, Amarako (Donostia) Urgull tabernan zauriturik gertatu ostean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Hilik gertatu ziren, halaber, Jose Maria Sarrais Llasera komisarioa eta Gabriel Alonso Perejil komisariordea.

# 18

# Diego Fernandez-Montes Rojas

**Data:** 1978/12/17.

**Adina:** 63 urte.

**Non jaioa:** Herencia (Ciudad Real).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bederatzi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Erretiroa hartutako Infanteria-koronela, Donostiako Kultura Ministerioaren ordezkaritzan lanean jarraitzen zuen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Arantzazuko Ama Ospitalean, Donostiako Miramar kaleko Kultura Ministerioaren ordezkaritzan sartzera zihoala tiroz zauritu ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 19

# Pedro Garrido Caro

**Data:** 1978/12/23.

**Adina:** 57 urte.

**Non jaioa:** Miajadas (Cáceres).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Erroteta-Altza auzoko janari-denda baten jabea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Ana Mari janari-dendan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Zauriturik gertatu ziren Filomena Gonzalez emaztea (zortzi tiro jo zizkioten) eta zazpi urteko Maria Pilar Garrido alaba.

# 20

# Jose Maria Herrera Hernandez

**Data:** 1979/01/02.

**Adina:** 53 urte.

**Non jaioa:** Basauri (Bizkaia).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako komandante eta Gipuzkoako gobernadore militarraren laguntzailea. Gipuzkoako Kirol Batzordeko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Auto ofizialaren ondoan, Donostiako Madril Hiribidean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 21

# Gines Pujante Garcia

**Data:** 1979/04/07.

**Adina:** 41 urte.

**Non jaioa:** San Ginés (Murtzia).

**Destinoa:** Polizia Nazionalaren Erreserba Konpainia, Murtzian. Astebete zeraman Donostiako Loiolako kuartelean.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren sarjentua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Loiolako (Donostia) kuartelera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroketan, beste bi polizia hil ziren: Juan Bautista Peralta Montoya eta Miguel Orenes Guillamont.

# 22

# Juan Bautista Peralta Montoya

**Data:** 1979/04/07.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Murtzia.

**Destinoa:** Polizia Nazionalaren Erreserba Konpainia, Murtzian. Astebete zeraman Donostiako Loiolako kuartelean.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren kaboa.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Loiolako (Donostia) kuartelera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroketan, beste bi polizia hil ziren: Gines Pujante Garcia eta Miguel Orenes Gillamont.

# 23

# Miguel Orenes Guillamont

**Data:** 1979/04/07.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Rincón de Seca (Murtzia).

**Destinoa:** Polizia Nazionalaren Erreserba Konpainia, Murtzian. Astebete zeraman Donostiako Loiolako kuartelean.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren kaboa.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Loiolako (Donostia) kuartelera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroketan, beste bi polizia hil ziren: Juan Bautista Peralta Montoya eta Gines Pujante Garcia.

# 24

# Francisco Medina Albala

**Data:** 1979/06/22.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Almuñecar (Granada).

**Bizilekua:** Antiguo auzoa (Donostia).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ribera y Fresno enpresako igeltseroa. CC.OO sindikatuko kidea. Guardia Zibilarentzat Intxaurrondon (Donostia) eraikitzen ari ziren etxebizitza berrietan egiten zuen lan.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Egia auzoko Ametzagaña Hiribidean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 25

# Antonio Pastor Martin

**Data:** 1979/07/28.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Palentzia.

**Destinoa:** Donostia. Bi egun zeramatzan Herrerako Guardia Zibilaren kuartel-etxean.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila, bost hilabete lehenagotik.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Arantzazuko Ama Ospitalean, Donostiako Herrera auzoko Guardia Zibilaren kuartel aurrean zauriturik gertatu ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Moises Cordero Lopez guardia zibila ere hil egin zuten, eta Jose Alvarez Hillos guardia zibila balaz zauritu zuten.

# 26

# Moises Cordero Lopez

**Atentatuaren data:** 1979/07/28.

**Heriotza-data:** 1979/07/29, goizaldean.

**Adina:** 51 urte.

**Non jaioa:** Isla Cristina (Huelva).

**Destinoa:** Donostiako Herrera auzoko Guardia Zibilaren kuartel-etxea.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren brigada.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Arantzazuko Ama Ospitaleko ZIUn, goizaldeko 03:30ean, Donostiako Herrera auzoko Guardia Zibilaren kuartel aurrean zauriturik gertatu ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Antonio Pastor Martin guardia zibila ere hil egin zuten, eta Jose Alvarez Hillos guardia zibila balaz zauritu zuten.

# 27

# Aureliano Calvo Val

**Data:** 1979/08/30.

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Quintana de Valdelucio (Burgos).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi alaba eta seme bat. Emaztea, Carmen Ibarluzea, Donostiakoa zen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea. Taxilari-lanetan ere aritzen zen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere taxi barruan, Donostiako Tolosa Hiribidean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 28

# Lorenzo Gonzalez-Valles Sanchez

**Data:** 1979/09/23.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Ceuta.

**Destinoa:** Donostiako Gobernu Militarra, urte hartako apirilaz geroztik.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Brigada-jenerala eta Gipuzkoako Gobernadore militarra.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Kontxako Pasealekuan, emaztea eta semea aurrean zeudela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 29

# Miguel Rodriguez Fuentes

**Data:** 1980/02/08.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** Argoños (Kantabria).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Lau seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako Infanteriako komandantea. Errenteriako Don Bosco Lanbide Eskolako Automobilismo Saileko irakaslea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Don Boscon eskola amaitu eta gero etxera joateko asmoz autora sartzera zihoala hainbat pertsonak tiro egin zioten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 30

# Eugenio Sarazibar Gonzalez de Durana

**Data:** 1980/02/20.

**Adina:** 65 urte.

**Non jaioa:** Gasteiz (Araba).

**Bizilekua:** 7 urte zeramatzan Donostian, Irunen 25 urtez bizi ostean.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Infanteriako koronela eta ekonomatu militarreko burua. Zenbait urtez, Atletismoko Gipuzkoako Federazioko presidenteordea izan zen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Gros auzoan, ekonomatu militarretik irteten ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 31

# Jose Espinosa Viscarret

**Data:** 08/05/1980.

**Adina:** 60 urte.

**Non jaioa:** Iruñea (Nafarroa).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Pasaiako Luzuriaga ontziolako erosketa-burua. Artilleriako komandante erretiratua. Gipuzkoako Kirol Ordezkaritzako idazkaria.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Pasaian, lanetik irteten ari zela, bidegurutze batean, berekin batera zihoan laguna autotik aterarazi zuten, militar ohiaren aurka tiroka hasi aurretik.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 32

# Dionisio Villadangos Calvo

**Data:** 1980/05/15.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Villazala (Leon).

**Destinoa:** Donostiako NANaren bulegoan.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea, zortzi hilabete lehenagotik.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Majusi tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean hil ziren Jesus Holgado Sabio eta Jose Manuel Rodriguez Fontana polizia nazionalak.

# 33

# Jesus Holgado Sabio

**Data:** 1980/05/15.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Carratraca (Málaga).

**Destinoa:** Donostiako NANaren bulegoa. Hilabete eta erdi zeraman Donostian.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Majusi tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean hil ziren Dionisio Villadangos Calvo eta Jose Manuel Rodriguez Fontana polizia nazionalak.

# 34

# Jose Manuel Rodriguez Fontana

**Data:** 15/05/1980.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Almería.

**Destinoa:** Donostiako NANaren bulegoan.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Majusi tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean hil ziren Dionisio Villadangos Calvo eta Jesus Holgado Sabio polizia nazionalak.

# 35

# Lorenzo Motos Rodriguez

**Data:** 1980/10/13.

**Adina:** 61 urte.

**Non jaioa:** Valladolid (emaztea, Elizondokoa).

**Bizilekua:** Amara (Donostia).

**Seme-alabak:** Zazpi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako teniente koronela.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere autoan, Donostiako Arabako Plazan, Loiolako kuartelera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 36

# Juan Manuel Garcia Cordero

**Data:** 1980/10/23.

**Adina:** 53 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Bizilekua:** Gros auzoa (Donostia).

**Seme-alabak:** Zazpi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Telefonicak Gipuzkoan zuen ordezkaria, bi urte eta erdi lehenagotik.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak.

**Heriotza-lekua:** Etxetik irtetera zihoala bahitu eta Uliara eraman zuten. Hantxe aurkitu zuten hilik, zuhaitz batera loturik zegoela.

**Prozedura:** Bahiketa. Su-armaz tirokatuta hil zuten.

# 37

# Juan Carlos Fernandez Aspiazu

**Data:** 1980/10/29.

**Adina:** 31 urte.

**Bizilekua:** Donostia. Hileta Antiguon egin zuten.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Amara auzoko Copos tabernako jabekidea. Telefonicako filiala zen Citesa enpresako orrialde horietako publizitate-saileko arduradun modura ere egiten zuen lan.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Copos tabernan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 38

# Juan de Dios Doval Mateos

**Data:** 1980/10/31.

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Madril.

**Bizilekua:** Lorea, Antiguo auzoa (Donostia).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Zuzenbide Prozesaleko irakaslea Donostiako EHUko kanpusean. Unión del Centro Democrático (UCD) alderdiko zuzendaritza-batzordeko kide eta Mayor Orejaren ondoren Gipuzkoan Eusko Legebiltzarrerako zerrendetarako bigarrena.

**Egilea:** ETApm.

**Heriotza-lekua:** Bere auto barruan, Donostian.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatuaren berri jakin bezain laster, Zuzenbide Fakultatean ikasleek batzarra egin zuten, eta, gero, manifestazioan joan ziren Foru Aldundiraino.

# 39

# Jose Maria
# Perez
# Lopez de Orueta

**Data:** 1980/10/31.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Abokatu kriminalista.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere etxeko bulegoan bahitu zuten, ama aurrean zegoela, eta Ereñozura (Hernani) eraman zuten. Han, galdeketa bat egin ostean, buruan tiro egin zioten.

**Prozedura:** Bahiketa eta galdeketa. Su-armaz hil zuten.

# 40

# Miguel Garciarena Baraibar

**Data:** 1980/11/27.

**Adina:** 63 urte.

**Non jaioa:** Txurdineko Borda, Ezkurra (Nafarroa).

**Bizilekua:** Donostia. Mehatxuak jaso zituela eta, eszedentzia hartuta egon zen, eta ekainean itzuli zen Donostiara.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako udaltzainburua. Armadako teniente koronela erreserban. 1954tik 1957ra bitartean, Polizia Armatuko burua Irunen.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Auto ofizialean, Donostiako Udaltzaingo Buruzagitzara zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Jose Antonio Diaz Montoya auto-gidaria besoan zauritu zuten.

# 41

# Antonio Diaz Garcia

**Data:** 1981/01/05.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Errenteriako La Gramola pubaren jabea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Errenteriako Nafarroa Hiribidean, bere etxe-atariko eskaileretan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 42

# Leopoldo Garcia Martin

**Data:** 1981/01/17.

**Adina:** 63 urte.

**Non jaioa:** Marbella (Málaga).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Poliziaren tenienteorde erretiratua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Tiro egin zioten buruan, Donostiako Mirakruz gainean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 43

# Oswaldo Jose Rodriguez Fernandez

**Data:** 1981/04/14.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Rairiz (Ourense).

**Bizilekua:** Donostian, Loiolako etxe militarrean.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Indar Armatuen Giza Institutuan (ISFAS) administrari-lanak egiten zituen. Infanteriaren teniente erretiratua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** ISFASeko atarian, Donostian.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 44

# Jose Maria Latiegui Balmaseda

**Data:** 1981/04/14.

**Adina:** 40 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ingeniari teknikoa. “Moulinex España” multinazionaleko zuzendaria Usurbilen.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak.

**Heriotza-lekua:** Usurbileko (Gipuzkoa) lantokitik irteten ari zela, lokian tiro egin zioten, eta anbulantzian hil zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 45

# Esteban Alvarez Merayo

**Data:** 1981/06/05.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Albares de la Sierra (Leon).

**Destinoa:** Erreserba Konpainia, Coruñan.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren kaboa.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Polizia Nazionaleko sei furgoneta Donostiako Loiolako kuartelera zihoazela, lehergailu batek eztanda egin zuen.

**Prozedura:** Bonba bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Lau polizia zauritu ziren: Vicente Cachuza Basante, Julio Salgado Mendoza, Fermin Lopez Espino eta Jose Villar Iglesias.

# 46

## Benjamin Fernandez Fernandez

**Data:** 1982/02/16.

**Adina:** 61 urte.

**Non jaioa:** Puebla de Burón (Lugo).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Hezkuntza Ministerioaren ordezkaritzan egiten zuen lan. Hamabi urte lehenago, Guardia Zibiletik erretiroa hartu zuen. Tolosan egon zen destinatuta.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Alde Zaharreko Andra Mari elizaren ondoan bi pertsonak garondoan tiro egin zioten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Biktimaren adiskide bat, Eduardo Pablos Villanova, zauritu egin zuten.

# 47

# Enrique Cuesta Jimenez

**Data:** 1982/03/26.

**Adina:** 54 urte.

**Non jaioa:** Logroño (Errioxa).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Telefonicak Gipuzkoan zuen ordezkaria.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak.

**Heriotza-lekua:** Gipuzkoako hiriburuko Antso Jakituna kalean, bere etxetik eta lantokitik oso gertu.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Martxoaren 31n, atentatuan larri zauritu zuten Antonio Gomez Garcia bizkartzaina hil zen.

# 48

# Antonio Gomez Garcia

**Atentatuaren data:** 1982/03/26.

**Heriotza-data:** 1982/03/31.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Bornos (Cádiz).

**Destinoa:** Donostiako Polizia Etxea.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea. Telefonicako delegatu Enrique Cuestaren eskolta.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak.

**Heriotza-lekua:** Gurutze Gorrian, Gipuzkoako hiriburuko Antso Jakituna kaleko tiroketan egin zizkioten zaurien ondorioz.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Telefonicako delegatu Enrique Cuesta Jimenez ere atentatu berean hil zuten.

# 49

# Ramiro Carasa Perez

**Data:** 1982/03/30.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Liendo (Kantabria). 1982ko martxoaren 31ko El Pais egunkariaren arabera, Madrilen jaio zen.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Osasun Egoitzako traumatologia-burua.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Lokian tiro bat zuela aurkitu zuten, eskuak bizkarrera loturik zituela, Urnietatik gertuko mendi batean, Andoainera doan errepidean. Itxura denez, bahitu eta galdeketa bat egin zioten. Gero, Donostiako Osasun Egoitzako aparkalekuan bere autoan sartu eta Urnietatik gertuko mendi inguru batera eraman zuten.

**Prozedura:** Bahiketa eta galdeketa. Su-armaz hil zuten.

# 50

# Joaquina Patricia Llanillo Borbolla

**Data:** 1983/02/12.

**Adina:** 32 urte.

**Non jaioa:** Santander.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba. Haurdun zegoen.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Etxekoandrea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Bere auto barruan, Tolosako Andia kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Senarra, Jose Luis Alonso Alvarez, 38 urtekoa, ikertzaile pribatua Donostian, larri zauritu zuten, bularraldean bi tiro jota.

# 51

# Aniano Sutil Pelayo

**Data:** 1983/03/27.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** La Hiniesta (Zamora).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren kaboa (lehergailu-teknikaria).

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Portobello ehun-dendan lehergailu bat desaktibatzen ari zela, bonba lehertu zitzaion.

**Prozedura:** Bonba bat lehertuta, hura desaktibatzen ari zela.

**Datu gehigarriak:** 31 urteko Juan Manuel Martinez polizia larri zauritu zen, eta hanka anputatu zioten.

# 52

# Emilio Juan Casanova Lopez

**Data:** 1983/06/23.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Ayora (Valentzia).

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak.

**Heriotza-lekua:** Mundaiz Pasealekuan, Donostiako Norteko tren-geltoki ondoan, poliziaren furgoneta bat kalean barrena zihoala, bonba-auto bat leherrarazi zuten. Bonbak furgonetan harrapatu zuen biktima.

**Prozedura:** Bonba-auto bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Beste bi polizia larriki zauritu ziren: Jose Antonio Quintana Cañuelo eta Antonio Gutierrez Pizarro. Jesus Diaz Barcia, Engracia Calabuig Noguera, Juan Plaza Navarro eta Heliodoro Borras poliziek zauri arinak izan zituzten.

# 53

# Manuel Peronie Diaz

**Data:** 1983/08/05.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako udaltzaina, gaueko txandako brigadako kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Oiartzungo San Esteban plazatik gertu, zenbait lagun armatu biktima eta haren adiskide bat bahitzen saiatu ziren. Korrika alde egiten ahalegindu ziren, baina tirokatu egin zituzten. Peronie Diez hil egin zuten, eta adiskidea, berriz, zauritu.

**Prozedura:** Bahiketa-saiakera. Su-armaz tiro egin zieten.

**Datu gehigarriak:** Atentatuan, biktimaren lagun bat, Victor Zabala Urturi, zauritu zuten. Errenteriako Koro Izagirre Larrañaga eta Iñigo Jauregi Bengoetxea ETAko kideak ere tiroz jo zituzten, inguruan baitzebiltzan.

# 54

# Eduardo Navarro Cañada

**Data:** 1983/12/15.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Valentzia.

**Destinoa:** Poliziaren Erreserba Konpainia, Valentzia. Errefortzu-lanetan ari zen Donostian.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETAm.

**Heriotza-lekua:** Udaltzain-uniformea jantzia zuten bi lagunek tiro egin zioten, Donostiako Bulebarrean patruilatzen ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Beste polizia, Clemente Medina Monreal, larriki zauritu zuten (polizia izateari utzi behar izan zion). Oinezko bat ere tiroz jo zuten: Crescencio Martinez Lekunberri.

# 55

# Enrique Casas Vila

**Data:** 1984/02/23.

**Adina:** 40 urte.

**Non jaioa:** Guadix (Granada).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** PSOEko senataria eta PSEko zerrendaburua Gipuzkoan. Hainbat kargu izan zituen: antolaketa-idazkaria, idazkari nagusia eta legebiltzarkidea. Legebiltzarrean, Euskadiko Segurtasun Batzordeko kidea izan zen. Fisika Nuklearrean lizentziaduna.

**Egilea:** Komando Autonomo Antikapitalistak.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Aiete auzoko bere etxean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 56

# Angel Zapatero Antolin

**Data:** 1984/06/14.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** La Mudarra (Valladolid).

**Destinoa:** Gipuzkoako Komandantziako Informazio Zerbitzua.

**Bizilekua:** Altza (Donostia).

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Larratxo auzoan, bere ibilgailuko aurreko gurpilari lotuta zegoen bonba leherrarazi zutenean.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Hedatze-uhinak 14 urteko Jose Evangelista Matias zauritu zuen.

# 57

# Maximo Antonio Garcia Kreinle

**Data:** 1985/05/12.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Kortes (Nafarroa).

**Destinoa:** Donostia.

**Bizilekua:** Altza-Larratxo, Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Etxetik gertu, Larratxoko taberna batetik irtetean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 58

## Maximo Diaz Bardera

**Data:** 1985/05/21.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Pedro Bernardo (Ávila).

**Destinoa:** Donostiako Gobernu Zibileko telefonogunea.

**Bizilekua:** Trintxerpe (Pasaia).

**Seme-alabak:** Alaba bat eta bi seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Ulia mendiaren magalean, Donostia eta Pasaia artean, beste polizia batekin batera txakurra paseatzen ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Francisco Rivas Lopez polizia hil zuten.

# 59

# Francisco Rivas Lopez

**Data:** 1985/05/21.

**Adina:** 50 urte.

**Non jaioa:** Torremocha (Guadalajara).

**Destinoa:** 26 urte zeramatzan Donostian.

**Bizilekua:** Pasai San Pedro (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Ulia mendiaren magalean, Donostia eta Pasaia artean, beste polizia batekin batera txakurra paseatzen ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Maximo Diaz Bardera polizia hil zuten.

# 60

# Antonio Jesus Trujillo Comino

**Data:** 1985/07/09.

**Adina:** 22 urte.

**Non jaioa:** Priego (Kordoba).

**Destinoa:** Valdemoroko Guardia Zibil Gazteen Eskolatik atera berria. Bi hilabete zeramatzan Donostian, maiatzaren 1etik.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Auto baten barruan, Donostiako Ogasun Ordezkaritza ondoan zaintzaile-lanetan zebilela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Zaintzaile-lanak egiten ari zen Juan Merino Antunez ere hil egin zuten.

# 61

# Juan Merino Antunez

**Data:** 1985/07/09.

**Adina:** 21 urte.

**Non jaioa:** Llanes (Asturias).

**Destinoa:** Valdemoroko Guardia Zibil Gazteen Eskolatik atera berria. Bi hilabete zeramatzan Donostian, maiatzaren 1etik.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kidea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Auto baten barruan, Donostiako Ogasun Ordezkaritza ondoan zaintzaile-lanetan zebilela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Zaintzaile-lanak egiten ari zen Antonio Jesus Trujillo Comino ere hil egin zuten.

# 62

# Jose Manuel Ibarzabal Duque

**Data:** 1985/11/25.

**Adina:** 20 urte.

**Non jaioa:** Donostiako Alde Zaharra (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Soldaduska egiten ari zen Pasaiako Itsas Armadaren Komandantzian.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiatik Pasaiara doan errepidean, Bidebieta parean. Ibilgailua metrailatu egin zuten, eta zuhaitz bat jo zuen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua, biktima gidari zuen ibilgailu militar bat Pasaiako Itsas Armadaren Komandantziara zihoala.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Armadako kabo irrati-telegrafista Rafael Melchor Garcia hil zuten. Hauek zauritu zituzten: Manuel Rodriguez Santisteban (mediku alfereza), Daniel Asensio Foriza eta Luis Angel Bahamonde (kabo bigarrena).

# 63

# Rafael Melchor Garcia

**Data:** 1985/11/25.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Castrillo del Val (Burgos). Familia Kordoban bizi zen.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Armadako kabo irrati-telegrafista.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiatik Pasaiara doan errepidean, Bidebieta parean. Ibilgailua metrailatu egin zuten, eta zuhaitz bat jo zuen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua, biktima gidari zuen ibilgailu militar bat Pasaiako Itsas Armadaren Komandantziara zihoala.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Donostiako Jose Manuel Ibarzabal Duque ordezko soldadua hil zuten. Hauek zauritu zituzten: Manuel Rodriguez Santisteban (mediku alfereza), Daniel Asensio Foriza eta Luis Angel Bahamonde (kabo bigarrena).

# 64

# Jose Herrero Quilez

**Data:** 1985/11/26

**Adina:** 67 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Bizilekua:** Lasarte-Oria (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kidea erretiratua.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Ohi bezala Iñaki tabernan kartetan aritu ostean, 19 urteko semearekin batera etxera zihoala, ondo-ondotik egin zioten tiro Lasarteko Urdaneta kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Berria jakitean, emazteak bihotz-kolapso bat izan zuen, eta ospitalera eraman behar izan zuten. Seme gazteenari ere bihotzekoak jo zion. Biktimak beste atentatu bat izan zuen 1984ko otsailean.

# 65

# Jose Antonio Alvarez Diez

**Data:** 1986/03/14.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Tremor de Arriba (Leon).

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionalaren inspektorea.

**Destinoa:** Bost urte zeramatzan Donostian.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Mirakontxa Pasealekuan.

**Prozedura:** Tiroketa bat, kamuflatutako auto batean zihoazen polizia hiru susmagarri (bi gizonezko eta emakumezko bat) identifikatzen saiatu zirenean.

**Datu gehigarriak:** Tiroketa berean, Angel Mari Galarraga Mendizabal “Pototo” ETAko ustezko kidea hil zen.

# 66

# Enrique Moreno Arguilea

**Data:** 1986/05/02.

**Adina:** 71 urte.

**Non jaioa:** Iruñea (Nafarroa).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Bizilekua:** Intxaurrondo (Donostia).

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Erretiratua. Zapata-denda betean egin zuen lan. Intxaurrondoko Erretiratuen Elkarteko kidea. Espainiako Herrien Alderdi Komunistako (PCPE) kidea. Frankismo-garaian, hiltzera kondenatu zuten.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bi pertsonak garondoan tiro egin zioten, Donostiako Amara auzoko Esnaola tabernan, lagunekin karta-partida bat jolastera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Bost egun geroago, ETAk “hutsegite dramatikotzat” jo zuen atentatua. ETAren arabera, biktima polizia ohi batekin nahastu zuten.

# 67

# Rafael Garrido Gil

**Data:** 1986/10/25.

**Adina:** 59 urte.

**Non jaioa:** Zaragoza.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Sei seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Gobernadore Militarra. Urtebete zeraman Donostian. Armadaren dibisio-jenerala. Estatu Nagusiko mendi-tropetan eta gudu-orgetan diplomaduna.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Bulebarrean.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita. Ibilgailu ofizialeko sabaian, imanak erabiliz hainbat ontzi itsatsi zituzten.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Daniela Velasco Dominguez emaztea eta Daniel Garrido Velasco hil ziren, biak ala biak auto ofizialean baitzihoazen. Auto-gidariak, Norberto Jesus Febrer Lozano soldaduak, erredura larriak izan zituen. Egun batzuk geroago, azaroaren 11n, atentatuan hedatze-uhinek, oinez zihoala, harrapatutako Maria Jose Teixeira Gonçalves hil zen. Pertsona hauek larriki zauritu ziren: Pilar Calahorra Escalada (ondorio larriak eragin zizkion atentatuak), Maria Mendiola Zubiarrain (40 egun eman zituen ospitalean), Jose Julio Bilbao Ariño eta 2 urteko haren seme Ander Bilbao Goñi (30 egunez, zaintza medikoen premian egon ziren biak), Maria Dolores Cortazar Lorente, Maria Asuncion Ramirez Saenz de Murrieta eta Juan Dornaleteche Vergara. Pertsona hauek zauri arinak izan zituzten: Argi Iriarte Manajares, Hugo eta Alejandro Lesaka Imaz, eta Juana Alonso Galarreta.

# 68

# Daniela Velasco Dominguez de Vidaurreta

**Data:** 1986/10/25.

**Adina:** 57 urte.

**Non jaioa:** Zangoza (Nafarroa).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Sei seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Etxekoandrea. Gipuzkoako Gobernadore militarraren emaztea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Bulebarrean.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita. Ibilgailu ofizialeko sabaian, imanak erabiliz hainbat ontzi itsatsi zituzten.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Rafael Garrido Gil senarra eta Daniel Garrido Velasco hil ziren, biak ala biak auto ofizialean baitzihoazen. Auto-gidariak, Norberto Jesus Febrer Lozano soldaduak, erredura larriak izan zituen. Egun batzuk geroago, azaroaren 11n, atentatuan hedatze-uhinek, oinez zihoala, harrapatutako Maria Jose Teixeira Gonçalves hil zen. Pertsona hauek larriki zauritu ziren: Pilar Calahorra Escalada (ondorio larriak eragin zizkion atentatuak), Maria Mendiola Zubiarrain (40 egun eman zituen ospitalean), Jose Julio Bilbao Ariño eta 2 urteko haren seme Ander Bilbao Goñi (30 egunez, zaintza medikoen premian egon ziren biak), Maria Dolores Cortazar Lorente, Maria Asuncion Ramirez Saenz de Murrieta eta Juan Dornaleteche Vergara. Pertsona hauek zauri arinak izan zituzten: Argi Iriarte Manajares, Hugo eta Alejandro Lesaka Imaz, eta Juana Alonso Galarreta.

# 69

# Daniel Garrido Velasco

**Data:** 1986/10/25.

**Adina:** 21 urte.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Maisu-ikasketak egiten ari zen Donostian. Gipuzkoako gobernadore militarraren seme gazteena.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Bulebarrean.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita. Ibilgailu ofizialeko sabaian, imanak erabiliz hainbat ontzi itsatsi zituzten.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Rafael Garrido Gil eta Daniela Velasco Dominguez emaztea gurasoak hil ziren, biak ala biak auto ofizialean baitzihoazen. Auto-gidariak, Norberto Jesus Febrer Lozano soldaduak, erredura larriak izan zituen. Egun batzuk geroago, azaroaren 11n, atentatuan hedatze-uhinek, oinez zihoala, harrapatutako Maria Jose Teixeira Gonçalves hil zen. Pertsona hauek larriki zauritu ziren: Pilar Calahorra Escalada (ondorio larriak eragin zizkion atentatuak), Maria Mendiola Zubiarrain (40 egun eman zituen ospitalean), Jose Julio Bilbao Ariño eta 2 urteko haren seme Ander Bilbao Goñi (30 egunez, zaintza medikoen premian egon ziren biak), Maria Dolores Cortazar Lorente, Maria Asuncion Ramirez Saenz de Murrieta eta Juan Dornaleteche Vergara. Pertsona hauek zauri arinak izan zituzten: Argi Iriarte Manajares, Hugo eta Alejandro Lesaka Imaz, eta Juana Alonso Galarreta.

# 70

# Maria Jose Teixeira Gonçalves

**Atentatuaren data:** 1986/10/25.

**Heriotza-data:** 1986/11/11.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Portugal.

B**izilekua:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Etxekoandrea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Arantzazuko Ama Ospitalean. Hara eraman zuten urriaren 25ean, larri zaurituta, Donostiako Bulebarrean Gipuzkoako Gobernadore militarraren aurka.jarritako lehergailuak eztanda egin ondoren.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita. Ibilgailu ofizialeko sabaian, imanak erabiliz hainbat ontzi itsatsi zituzten.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Rafael Garrido Gil Gobernadore militarra, haren emaztea eta bien semea hil ziren. Auto-gidariak, Norberto Jesus Febrer Lozano soldaduak, erredura larriak izan zituen. Egun batzuk geroago, azaroaren 11n, atentatuan hedatze-uhinek harrapatutako oinezko bat hil zen. Pertsona hauek larriki zauritu ziren: Pilar Calahorra Escalada (ondorio larriak eragin zizkion atentatuak), Maria Mendiola Zubiarrain (40 egun eman zituen ospitalean), Jose Julio Bilbao Ariño eta 2 urteko haren seme Ander Bilbao Goñi (30 egunez, zaintza medikoen premian egon ziren biak), Maria Dolores Cortazar Lorente, Maria Asuncion Ramirez Saenz de Murrieta eta Juan Dornaleteche Vergara. Pertsona hauek zauri arinak izan zituzten: Argi Iriarte Manajares, Hugo eta Alejandro Lesaka Imaz, eta Juana Alonso Galarreta.

# 71

# Wenceslao Maya Vazquez

**Data:** 1987/09/27.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Badajoz.

**Destinoa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea. Bonba-autoak eztanda egitean, kaltetutako furgonetetako bat gidatzen ari zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bonba bat leherrarazi zuten, poliziaren bi furgoneta Donostiako Argentinar Errepublika kalean barrena zihoazela, Maria Cristina Hotelaren eta Victoria Eugenia Antzokiaren artean.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Lau polizia-agente larri zauritu ziren: Manuel Maruri Niño, Manuel Ibañez Herrera, Isidro Gallego Garcia-Carpintero eta Miguel Angel Rodriguez Pozuelo. Bi oinezko arin zauritu zituzten.

# 72

# Gregorio Caño Garcia

**Data:** 1989/06/29.

**Adina:** 49 urte.

**Non jaioa:** Villa Mañón (Leon).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** SAPA enpresako langilea. Adegiko kide eta SAPA arma-enpresako zuzendari Joaquin Aperribayren auto-gidaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Egunero bezala, biktimak autoa Zubieta kalean aparkatu zuen, nagusia jasotzeko asmoz. Antza denez, enpresarioaren etxe-atari aurrean bi pertsonek arraro jokatzen zutela ikusirik, biktima beraiengana hurbildu zen. Erasotzaileek bost tiro egin zizkioten. DYAk ospitalera zeramala hil zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 73

# Jose Angel Alvarez Suarez

**Data:** 1989/10/06.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Socil (Leon).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea. Eskolta-lanak egiten zituen.

**Destinoa:** Zortzi urte zeramatzan Donostian.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Kale-jantzian zihoan Donostiako Bretxarantz.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Hurrengo egunean, Donostiako Udalak, “Bakea orain eta beti” lelopean, manifestazio bat antolatu zuen.

# 74

# Aureliano Rodriguez Arenas

**Atentatuaren data:** 1990/03/01.

**Heriotza-data:** 1990/05/31 (Libertad Digital eta Vidas Rotas).

**Adina:** 65 urte.

**Non jaioa:** Kordoba.

**Bizilekua:** Bidebieta (Donostia).

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ontzi-tenientea, 1989ko abuztuan erretiratua. Armadako zaintzaile nagusi izandakoa. Ainguratze-baimenak ematearen arduraduna.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Bidebietan martxoaren 1ean izandako atentatuan, biktima larriki zauritu zen. Bi bala buruan gelditu zitzaizkion. Hiru hilabete eman zituen koma sakonean Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 75

# Angel Jesus Mota Iglesias

**Atentatuaren data:** 1990/03/13.

**Heriotza-data:** 1990/03/14.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Zamora.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** 11 urte zeramatzan Martuteneko (Donostia) espetxean administrari-lanak egiten.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Antiguon tirokatu zutenean, zauri larriak izan zituen. Gurutze Gorrian ebakuntza egin ondoren, koman gelditu zen, eta hurrengo egunean hil zen.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 76

# Elena Moreno Jimenez

**Data:** 1990/04/06.

**Adina:** 30 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ez dago behar beste egiaztatutako daturik.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Alde Zaharreko San Lorenzo kalean, senarrarekin Txiki tabernatik irtetean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Miguel Paredes Garcia senarra ere hil egin zen. 18 urteko Javier Marcos Espiga (Logroñokoa) balaz zauritu zuten. Espiga soldadutza egiten ari zen Pasaiako Itsas Armadaren Komandantzian.

# 77

# Miguel Paredes Garcia

**Data:** 1990/04/06.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ez dago behar beste egiaztatutako daturik.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Alde Zaharreko San Lorenzo kalean, emaztearekin Txiki tabernatik irtetean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Elena Moreno Jimenez emaztea ere hil egin zen. 18 urteko Javier Marcos Espiga (Logroñokoa) balaz zauritu zuten. Espiga soldadutza egiten ari zen Pasaiako Itsas Armadaren Komandantzian.

# 78

# Virgilio Do Nascimento Afonso

**Data:** 1990/05/22.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Portugal.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Buenavista auzoan, taberna batetik irtetean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Libertad Digital eta Vidas Rotas, biek ala biek diotenez, “Estatuko Segurtasun Indarren arabera, droga- eta arma-trafikoan eta ibilgailuen lapurretan zebilen talde bateko arduraduna zen”.

# 79

# Jose Lasanta Martinez

**Data:** 1990/06/13.

**Adina:** 74 urte.

**Non jaioa:** Cienfuegos (Kuba).

**Bizilekua:** Autol (Errioxa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Lurreko Armadaren Infanteria-koronela, 1980an erretiratua. Frankismoko Auzitegi Militarreko instrukzio-epailea izan zen. Loiolako (Donostia) Sizilia infanteria-erregimentuan destinatuta egon zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Gurutze Gorrian, Donostiako Kontxako Pasealekuan, Londres Hotelaren parean, armaz zauritu eta gutxira.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 80

# Ignacio Urrutia Bilbao

**Data:** 1990/06/28.

**Adina:** 74 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Lurreko Armadaren Ingenieritza-kapitain erretiratua. Eraikuntza Ingeniaritza eta Armagintza Konpainiako (CIAC) kidea izan zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Etxetik gertu, Donostiako Antiguo auzoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 81

# Vicente Lopez Jimenez

**Data:** 1990/12/13.

**Adina:** 52 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Egunkari-saltzailea, Donostiako Amara auzoan. Oso pertsona ezaguna zen Alde Zaharrean.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Zemoria kalean motorra aparkatzen ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 82

# Luis Garcia Lozano

**Data:** 1991/01/02.

**Adina:** 56 urte.

**Non jaioa:** Cetina (Zaragoza).

**Bizilekua:** Amara, Donostia.

**Seme-alabak:** Bost seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Lurreko Armadaren koronela. Gipuzkoako jarduneko gobernadore militarra. Juan Elgueta Seguera brigada-jeneralaren ordezkoa zen. Donostiako Zaldiketa Elkarte Militarreko presidentea zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Foruen Pasealekuaren eta Etxaide kalearen artean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 83

# Luis Arago Guillen

**Data:** 1991/03/16.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Murero (Zaragoza).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren kabo lehena.

**Destinoa:** Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartela.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Egia auzoan, kale-jantzian zihoazen beste hiru guardia zibilekin batera autoan zihoala. Autoa biktimak gidatzen zuen.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Zauriturik gertatu ziren beste hiru guardia zibilak: Pedro Samuel Martin Garcia (26 urte), Miguel Angel Garcia Morillas (23 urte) eta Jose Carlos Casillas Fernandez (21 urte). Bi oinezko ere larri zauritu zituzten: Diego Montes Calle eta haren aita Victor Montes Mentol.

# 84

# Koro Villamudria Sanchez

**Data:** 1991/04/15.

**Adina:** 17 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Bizilekua:** Donostiako Amara auzoko Eustasio Amilibia kalea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** BBBko hirugarren mailako ikaslea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Amara auzoan.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita, biktimak autoaren ateetako bat ixtean.

**Datu gehigarriak:** Aita polizia nazionala zuen, eta egunero eramaten zituen lau seme-alabak eskolara. Ibilgailu azpian begiratu nahi izan zuenerako, Koro gaztea autoan sartuta zegoen, eta atea ixtean lehergailuak eztanda egin zuen. Koro hil egin zen, eta etxekoak –aita, 16 urteko Josune eta 12 urteko Leire ahizpak, eta 15 urteko Luis anaia– larriki zauritu ziren. Familiak granadekin egindako beste bi eraso pairatu behar izan zituen Trintxerpen, 1990eko azaroan eta 1991ko otsailean (El Diario Vasco, 1991/05/16). Hurrengo egunean, Donostiako Udalak, “Koro: inoiz ez zaitugu ahaztuko” lelopean, manifestazio bat antolatu zuen.

# 85

# Francisco Gil Mendoza

**Data:** 1991/08/07.

**Adina:** 27 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Bizilekua:** Hendaia (Lapurdi).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ez dago behar beste egiaztatutako daturik.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Irungo Urdanibia Plazan, Alfredo Gil anaiarekin batera jarleku batean eserita zegoela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 86

# Eduardo Sobrino Gonzalez

**Data:** 1991/10/23.

**Adina:** 33 urte.

**Non jaioa:** Vigo (Pontevedra).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kidea.

**Destinoa:** Eraikinak zaintzea helburu zuen Zerbitzuen Unitatea. Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartela.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Beste guardia zibil batekin batera Donostiako Egia auzoko Puente tabernan afaltzen ari zen, kanpoaldetik metrailetaz tirokatu zituztenean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Juan Carlos Trujillo Garcia guardia zibila hil zen.

# 87

# Juan Carlos Trujillo Garcia

**Data:** 1991/10/23.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Argamasilla de Calatrava (Ciudad Real).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibileko kidea.

**Destinoa:** Eraikinak zaintzea helburu zuen Zerbitzuen Unitatea. Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartela.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Beste guardia zibil batekin batera Donostiako Egia auzoko Puente tabernan afaltzen ari zen, kanpoaldetik metrailetaz tirokatu zituztenean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Eduardo Sobrino Gonzalez guardia zibila hil zen.

# 88

# Jose Javier Urritegi Aramburu

**Data:** 1991/11/25.

**Adina:** 24 urte.

**Non jaioa:** Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Itxura denez, bi astetik gora zeramatzan Donostiako Chaplin pubean lan egiten.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Larratxo auzoko Chaplin pubean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Libertad Digital egunkariaren arabera, biktimak hamabost egun zeramatzan Chaplin pubean lan egiten. “ETAko salatariek aurreko jabea salatu zuten, droga-trafikoan nahasita zegoelakoan, eta haren izena Guardia Zibilak hiru hilabete lehenago, 1991ko abuztuan, ETAko Donostia Komandoari konfiskatutako agirietako batean aipatzen omen zen”.

# 89

# Jose Manuel Fernandez Lozano

**Data:** 1992/08/17.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Alfacar (Granada).

**Seme-alabak:** Urtebetetik beherako seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Destinoa:** Intxaurrondoko (Donostia) Guardia Zibilaren kuartela.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Oiartzungo Mamut supermerkatuaren aparkalekuan, erosketa batzuk egin ostean, autora zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Juan Manuel Martinez Gil guardia zibila hil zuten.

# 90

# Juan Manuel Martinez Gil

**Data:** 1992/08/17.

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Sarreus (Ourense).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Destinoa:** Intxaurrondoko (Donostia) Guardia Zibilaren kuartela.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Oiartzungo Mamut supermerkatuaren aparkalekuan, erosketa batzuk egin ostean, autora zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, Jose Manuel Fernandez Lozano guardia zibila hil zuten.

# 91

# Ricardo Gonzalez Colino

**Data:** 1992/09/14.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Cerezal de Sanabria (Zamora).

**Bizilekua:** 11 urte zeramatzan Donostian.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Polizia Nazionaleko kidea.

**Destinoa:** Donostiako Polizia Nazionalaren segurtasun-unitateetako irrati-patruila.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Tiro bat jo zioten buruan, Donostiako Egia auzoko Bar 19 tabernan kartetan ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 92

# Jose Antonio Santamaria Vaqueriza

**Data:** 1993/01/19.

**Adina:** 47 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Basque tabernaren jabea, eta Ku diskotekaren jabekidea. Futbolari ohia.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Alde Zaharreko Gaztelupe elkartean, San Sebastian egunaren bezperan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 93

# Jose Ramon Dominguez Burillo

**Data:** 1993/01/22.

**Adina:** 35 urte.

**Non jaioa:** Burgos.

**Bizilekua:** Martutene (Donostia).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Martuteneko espetxeko funtzionarioa. Psikologian lizentziaduna. 1985. urteaz geroztik, espetxeko psikologo eta hezitzailea zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Martutene auzoan.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 94

# Emilio
# Castillo
# Lopez de la Franca

**Data:** 1993/03/18.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Ciudad Real.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia Zibilaren kabo lehena.

**Destinoa:** Pasaiako (Gipuzkoa) portuko zaintza-zerbitzua.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Ategorrieta Hiribidean, biktima gidari zuen autoari tirokatu ostean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** 22 urteko Victoriano Alvarez Alvarez polizia ere larri zauritu zuten, eta zauriek ezintasun iraunkorra eragin zioten.

# 95

# Angel Gonzalez Sabino

**Data:** 1993/06/02.

**Adina:** 29 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ez dago behar beste egiaztatutako daturik.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Bidebieta auzoan, hamargarren solairuko etxearen ate aurrean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 96

# Jose Manuel Olarte Urreizti

**Data:** 1994/07/27.

**Adina:** 42 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ostalaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Alde Zaharreko Unión Artesana elkartean, kartetan ari zela, garondoan tiro bat jo zioten.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 97

# Gregorio Ordóñez Fenollar

**Data:** 1995/01/23.

**Adina:** 36 urte.

**Non jaioa:** Caracas (Venezuela).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Urtebeteko seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Udaleko alkateordea. Gipuzkoako Alderdi Popularreko presidentea. Alianza Popularreko (AP) kidea. Alderdi Popularreko legebiltzarkidea Eusko Legebiltzarrean. Kazetaria.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Abuztuaren 31 kaleko La Cepa tabernan tirokatu zuten, bere udal taldeko kideekin bazkaltzen ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Atentatu honek sekulako eragina izan zuen gizartean eta politikan. Donostiako Udaleko Herri Batasuneko Begoña Garmendia zinegotziak atentatua gaitzetsi zuen.

# 98

# Mariano De Juan Santamaria

**Data:** 1995/04/10.

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Alhucemak (Maroko).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Lurreko Armadaren Infanteria-brigada. Gipuzkoako Patinaje Federazioko idazkaria.

**Destinoa:** Loiolako (Donostia) kuartel militarra.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Loiola auzoan, kuarteletik irtetean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 99

# Enrique Nieto Viyella

**Atentatuaren data:** 1995/06/08.

**Heriotza-data:** 1995/10/19.

**Adina:** 46 urte.

**Non jaioa:** Infiesto (Asturias).

**Bizilekua:** Donostiako Amara auzoan.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Poliziaren inspektore-burua. Donostiako Polizia Judizialaren Brigadaren eta Terrorismoaren aurkako Unitatearen (UTA) arduraduna. Pasaiako polizia-etxeko burua izan zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Arantzazuko Ama ospitalean. Larri zaurtu zen ekainaren 8an Donostiako Antso Jakituna kalean garondoan jasotako tiroaren ondorioz, eta lau hilabete eta erdi eman zituen koma sakonean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 100

# Fernando Mugica Herzog

**Data:** 1996/02/06.

**Adina:** 62 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Hiru seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Abokatua. PSOEko militante historikoa. Eusko Kontseilu Nagusiko kidea izan zen (1978-1980), eta Gipuzkoako PSE-PSOEko presidentea, 1993. urtera arte.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Garondoan tiro bat jo zioten, Donostiako San Martin kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Semea ere han inguruan zebilen, bulegoa elkarrekin konpartitzen baitzuten, eta erasotzaileek arma bat jarri zioten aurrean, mugi ez zedin.

# 101

# Eugenio Olaciregui Borda

**Data:** 1997/01/30.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Bizikleta-saltzailea Comet dendan; lehenbizi, Donostiako Askatasunaren Hiribidean, eta, gero, hil zuten garaian, Oiartzunen. Bere anaia Miguelekin eta beste hiru lagunekin batera, Egiako Txirrindulari Kluba sortu zuen. ELAko kidea zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Egia auzoan tiro bat jo zioten garondoan, Oiartzunera elkarrekin lanera joateko lagun baten zain zegoela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** ETAko kide bat berak lan egiten zuen merkataritza-gunean erosketak egiten ari zela poliziari adierazi izana leporatu zion ETAk. Biktimaren familiak birritan gezurtatu zuen halakorik gertatu izana. Halaxe frogatu zen 2012an sumarioari berrekin ziotenean, orduan Valentin Lasarte presoak esan baitzuen helburuz nahastu zirela (El Correo, 2012/03/24 eta Europa Press, 2012/03/24).

# 102

# Francisco Arratibel Fuentes

**Data:** 1997/02/11.

**Adina:** 44 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Donostia.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elikagaien sektoreko enpresarioa. Master Catering enpresaren jabea. Dendak Donostian zeuzkan. Bitartekaritza-lanak egin zituen Mirentxu Elosegiren bahiketan (1982), Jaime Caballerorenean (1987) eta Emiliano Revillarenean (1988).

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Tolosako Inauterietan, 12 urteko semea aurrean zegoela, herriko alde zaharrean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** 1988an Emiliano Revilla askatzeko ordaindutako erreskatearen zati batekin gelditu izana leporatu zion ETAk. 1994an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nazionalak bi urteko espetxe-zigorra ezarri zion, bitartekari-lanak “irabaziak lortzeko asmoz” egin izana leporatuta. Hildakoak beste atentatu bat pairatu zuen 1996an.

# 103

# Francisco Javier Gomez Elosegi

**Data:** 1997/03/11

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Leon.

**Bizilekua:** Gros auzoa, Donostia.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Psikologoa. Martuteneko espetxeko funtzionarioa. Prestakuntza-ikastaroak ematen zituen Kriminologia Institutuan. ELAko kidea. Presoak Euskal Herrira hurbiltzea eskatzen zuen ELA eta LABek sinatutako dokumentua idazten parte hartu zuen, 1996ko abenduan Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu zena.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Gros auzoan, bere etxeko ataritik gertu, garondoan tiro bat jota.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# 104

# Ramon Diaz Garcia

**Data:** 2001/01/26.

**Adina:** 51 urte.

**Non jaioa:** Salamanca.

**Bizilekua:** Donostia. 11 urte zeramatzan Euskadin.

**Seme-alabak:** Alaba bat eta seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** 17 urte zeramatzan Donostiako Itsas Armadaren Komandantzian sukaldari-lanak egiten. CC.OO. sindikatuko kidea. Atzerrian elektrikari aritutakoa zen. Loiolako Auzokideen Elkarteko kidea zen.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Autoa martxan jartzean, Donostiako Loiola auzoan.

**Prozedura:** Lapa-bonba bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Eztandak lau pertsona zauritu zituen: Ugaitz Tolosa Blanco, Endika Urreaga Cebrian, Ramon Ayesa Vidal eta Enrique Del Rio Serrano.

# 105

# Jose Angel Santos Laranga

**Data:** 2001/02/22.

**Adina:** 40 urte.

**Non jaioa:** Porto do Son (Coruña).

**Bizilekua:** Ikaztegieta. Aurretik, Andoainen eta Pasaian bizi izan zen.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elektrak kontratatutako Beysa enpresako langilea.

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostian, Martuteneko geraleku ondoan.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Hainbat langile, auzoko industrialdeko beren lanetara joatea helburu hartuta, Martuteneko geralekuan trenetik jaitsi, eta orduantxe leherrarazi zuten bonba-autoa. Atentatu berean, Josu Leonet Azkune langilea hil zuten. Itxura denez, Ordiziako PSE-PSOEko zinegotzi Iñaki Dubreuil Churruca zinegotzia hiltzea zen erasotzaileen helburua. Dubreuilek erredura larriak izan zituen aurpegian eta buruan. Baita haren bizkartzainak ere. Beste bi langile larri zauritu zituzten: Igor Larrea Olano eta Jose Ignazio Urrestarazu. Beste bost langilek zauri arinak izan zituzten: Sandra Viejo Lorentek, Maria Arantzazu Perez Cayetanok eta Ignazio Urdangarin Mujikak, besteak beste. Bere komunikatuan, ETAk “hutsegite larritzat” jo zuen atentatua.

# 106

# Josu Leonet Azkune

**Data:** 2001/02/22.

**Adina:** 31 urte.

**Non jaioa:** Tolosa (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Amaroz auzoa, Tolosa (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Hamar hilabeteko alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Elektra enpresako langilea, Martutenen (Donostia).

**Egilea:** ETA.

**Heriotza-lekua:** Donostian, Martuteneko geraleku ondoan.

**Prozedura:** Urrutitik aktibatutako bonba-auto bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Hainbat langile, auzoko industrialdeko beren lanetara joatea helburu hartuta, Martuteneko geralekuan trenetik jaitsi, eta orduantxe leherrarazi zuten bonba-autoa. Atentatu berean, Jose Angel Santos Laranga langilea hil zuten. Itxura denez, Ordiziako PSE-PSOEko zinegotzi Iñaki Dubreuil Churruca zinegotzia hiltzea zen erasotzaileen helburua. Dubreuilek erredura larriak izan zituen aurpegian eta buruan. Baita haren bizkartzainak ere. Beste bi langile larri zauritu zituzten: Igor Larrea Olano eta Jose Ignazio Urrestarazu. Beste bost langilek zauri arinak izan zituzten: Sandra Viejo Lorentek, Maria Arantzazu Perez Cayetanok eta Ignazio Urdangarin Mujikak, besteak beste. Bere komunikatuan, ETAk “hutsegite larritzat” jo zuen atentatua.

# 107

# Santiago Oleaga Elejabarrieta

**Data:** 2001/05/24

**Adina:** 54 urte.

**Non jaioa:** Durango (Bizkaia).

**Bizilekua:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Semea eta alaba.

**Lanbidea, kargua, beste batzuk:** *El Diario Vasco* egunkariko finantza-zuzendaria; bertan lan egiten zuen, 1979tik. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua.

**Egiletza:** ETA.

**Lekua:** Zazpi tiro eman zizkioten Matia mediku-zentroko aparkalekuan, Donostian.

**Prozedura:** Su-arma bidezko atentatua, gertutik.

**Datu gehiago:** Komandoko kideek Santiago Oleaga erailtzeko erabili zuten autoa Aiete auzoan aparkatu zuten, lehergailuz beteta, eta utzi eta minutu gutxira egin zuten eztanda.

# **I.** Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

## 2. **ATE**, **BVE**, **GAL** eta **GAE**k bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

# 1

# Justo Elizaran Sarasola

**Atentatuaren data:** 1979/09/13.

**Heriotza-data:** 1979/10/05.

**Adina:** 25 urte.

**Non jaioa:** Donostia. Familia Tolosakoa zuen.

**Bizilekua:** Miarritze (Lapurdi).

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** ETAko kidea. Delineatzaile egiten zuen lan Aturri enpresan, eta Miarritzen bizi zen, emaztearekin eta bi alabekin batera.

**Egilea:** ATE, BVE eta ANEk beren gain hartu zuten atentatua.

**Heriotza-lekua:** Miarritzeko bere etxetik irtetean zazpi tiro jo zizkioten, eta 22 egun eman zituen Baionako Ospitalean, urriaren 5ean hil zen arte.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Tiroak egin zituzten lau mertzenarioak atentatua gertatutako lekutik gertu atxilotu zituzten, eta aurrerago beste bi atxilotu zituzten Miarritzen bertan.

# 2

# Tomas Alba Irazusta

**Data:** 1979/09/28.

**Adina:** 42 urte.

**Non jaioa:** Bilbo.

**Bizilekua:** Donostia. Aurretik, Eibarren bizi izan zen.

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Udaleko HBko zinegotzia. Eibarko armagintza-eskolako irakaslea, Eibarko Gaztedi Irratiko eta Arrate Irratiko esataria izan zen. Donostiako hainbat automobil-kontzesionariotan ere lan egin zuen.

**Egilea:** BVE.

**Heriotza-lekua:** Goizaldean, hainbat posta-tiro egin zizkioten Astigarragako Kako sagardotegira zihoala tabakoa erostera.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** 1980. urteaz geroztik, bere izena daraman kale bat dago Astigarragan, eta Donostiako udalak plaka bat jarri zuen Udaletxe barruan.

# 3

# Mari Jose Bravo del Valle

**Gertakarien data:** 1980/05/07.

**Gorpua aurkitu zuteneko data:** 1980/05/08.

**Adina:** 16 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ikaslea.

**Egilea:** Batallón Vasco Español (BVE).

**Heriotza-lekua:** Loiolako (Donostia) kuarteletik gertu, Francisco Javier Rueda Alonso mutil-lagunarekin batera zegoela.

**Prozedura:** Bortxaketa eta hilketa.

**Datu gehigarriak:** Erasotzaileek gizona jipoitu zuten, eta, garezurra hautsi eta eskuineko hezur parietala hondoratu ondoren, konortea galdu zuen. Bien bitartean, neska urrunagoko leku batera eraman zuten, eta bertan bortxatu eta hil egin zuten. Gorpua hurrengo egunean agertu zen, “burua erabat txikiturik, eta gerritik behera biluzik” (El País, 1980/05/09). BVEk bere gain hartu zuen heriotza: “ETAren isilmandataria zen, eta horregatik hil dugu. Hondarribiko autobusean gertatu zena dela tarteko, bi euskal neska hilko ditugu. Berasategi komandoa”. 2010eko martxoaren 21ean, El Pais egunkariak kasu honi buruzko erreportajea argitaratu zuen.

# 4

# Santos Blanco Gonzalez

**Atentatuaren data:** 1985/06/26.

**Heriotza-data:** 27/06/1985.

**Adina:** 51 urte.

**Non jaioa:** Intxaurrondo, Donostia.

**Bizilekua:** 1979tik ihesita zegoen: lehenbizi, Venezuelan (hiru urte), eta, gero, Baionan.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Metalurgialaria. ETAko kidea.

**Egilea:** GAL.

**Heriotza-lekua:** Hiru tiro eman zizkioten atzetik, Baionako Victor Hugo eta Quai de l'Amiral Dubourdieu kaleen elkargunean, lagunak utzi eta etxera zihoala.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

# **I.** Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

## 3. **Segurtasun-indarrek** bizitzeko eskubidearen aurka egindako urraketak

# 1

# Jose Miguel Andueza Elizalde

**Data:** 1970/06/15.

**Adina:** 39 urte.

**Non jaioa:** Bera (Nafarroa).

**Seme-alabak:** Ezkongabea.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Urte askoan artzain ibili zen Estatu Batuetan, 1936ko altxamenduaren ondoren familia haraxe joan baitzen (Gernikako seme-alabak, 879. eta 880. or.). Gero, jaioterrira itzuli zen, eta bertan berregin zuen bere bizitza.

**Egilea:** Guardia zibila.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Tolosa Hiribidean guardia zibil batek larri zauritu ondoren, Gurutze Gorrian hil zen, ingresatu eta hamabost minutura.

**Prozedura:** Bi tiro eman zizkioten. Heriotza-liburuan, epaile militarrak kausa hau idatzarazi zuen: “barne-hemorragia”.

**Datu gehigarriak:** Bertsio eta testuinguru ugari. Bertsio batzuek Guardia Zibilaren ohiko kontrol baten testuinguruan kokatu dute auzia, eta beste zenbaitek bi ibilgailuren arteko trafiko-istripu bat aipatu dute. Lehenik udaltzainak bertaratu omen ziren, Guardia Zibileko agenteak gero. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 2

# Mikel Salegi Urbieta

**Data:** 1974/12/17tik 18ra, goizaldean.

**Adina:** 21 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Itsas Armadaren Institutu Sozialeko langilea. Donostiako Gros auzoko Ramon y Cajal Gazte Klubeko kidea.

**Egilea:** Guardia zibila.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Errekalde-Añorga auzoan, kontrol batean. Kontroleko seinaleak ez zeuden ikusgai, bertan zeuden ibilgailuek traba egiten baitzuten.

**Prozedura:** Hamazortzi tiro jaso zituen.

**Datu gehigarriak:** Lagunek Mikel Salegi ospitalera zeramatela, beste kontrol batekin egin zuten topo. Artean Salegi bizirik zegoela, Polizia Armatuak autoa hamar minutuz gerarazi zuen. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 3

# Felicitas Maria Alexandra Leckett

**Gertakarien data:** 1975/05/27.

**Heriotza-data:** 1975/06/02.

**Non jaioa:** Alemania.

**Bizilekua:** Neguri, Getxo (Bizkaia)

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:**

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Gurutze Gorrian. Alaba gidari zuen autoan zihoala, Bilbo-Behobia autopistan, Gipuzkoako hiriburuaren parean, tiroa jo eta larri zauritu zuten.

**Prozedura:** Itxuraz kontrol batean zegoen Polizia Armatuko agente batek tiro bat jo zion buruan.

**Datu gehigarriak:** Noticias del País Vasco durante el estado de excepción agiriaren arabera (1975eko maiatzeko 2. eta 3. buletinak): "Biktimaren alaba protestaka atera zen autotik, bere asmoa autoa gerarazteа zela esanez". Alemaniak Donostian zuen kontsulak eta Alemaniaren enbaxadoreak kexa bana bidali zituzten Kanpo Arazoetarako Ministeriora. Ministerioak agindu zuen "gertatutakoari buruzko ikerketa bat abiaraziko zuela". Gertaerak, baina, ikertzeke gelditu ziren. 1970etik 1982ra bitartean, mota horretako gertaeretan 19 pertsona hil ziren, eta 31 zauritu.

# 4

# Jesus Garcia Ripalda

**Data:** 1975/08/31.

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Gaueko eskoletara joaten zen, ingeniari teknikoa izateko. Egunez, familiako baten negozioan laguntzen zuen. Euskadiko Mugimendu Komunistako (EMK) kidea zen.

**Egilea:** Polizia Armatuko sarjentu bat.

**Heriotza-lekua:** Iraeta tabernaren ondoan, Donostiako Gros auzoko Karkizano eta Aita Larroca kaleen elkargunean, Angel Otaegi eta Jose Antonio Garmendiaren aurkako heriotza-zigorren aurkako manifestazio batean parte hartzen ari zela.

**Prozedura:** Ondo-ondotik tiro bat jo zioten.

**Datu gehigarriak:** Bertsio ofizialaren arabera, biktima “anemiak” eta “bihotzekoak” jota hil zen. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 5

# Jose Luis Aristizabal Lasa

**Data:** 1977/03/12.

**Heriotza-data:** 1977/03/14.

**Adina:** 20 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Enpresa-ikasketen ikaslea.

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Askatasunaren Hiribidetik gertu, auto barruan zegoela gomazko pilota batek harrapatu zuenean.

**Prozedura:** Hurbiletik gomazko pilota bat tirokatuta. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 6

# Isidro Susperregi Aldako

**Gertakarien data:** 1977/03/15.

**Heriotza-data:** 29/03/1977.

**Adina:** 68 urte.

**Non jaioa:** Errenteria (Gipuzkoa).

**Bizilekua:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako Acción Nacionalista Vascako (ANV) udal-batzordeko kidea.

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Amnistiaren aldeko manifestazio batean zegoela gomazko pilota batek harrapatu zuen, eta balantzaka iritsi zen Donostiako Askatasunaren Hiribideko kiosko bateraino. Hantxe aurkitu zuten etzanda. Gurutze Gorriaren ospitalean hil zen.

**Prozedura:** Gomazko pilota bat tirokatuta.

**Datu gehigarriak:** 1977ko martxoaren 31ko El Pais egunkariak izenburu hau jarri zion albisteari: “Agure bat hilik, gomazko pilota baten ondorioz”. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 7

# Jose Luis Cano Perez

**Data:** 1977/05/13.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Aranjuez (Madril).

**Bizilekua:** Errenteria (Gipuzkoa), familia hantxe bizi baitzen. Geroago, Donostian jarri zen bizitzen.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Tipografo egiten zuen lan *La Voz de España* egunkariaren tailerretan. CCOO sindikatuko kidea zen (Iriarte, 1995: 302).

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Iruñeko Manuel tabernaren sarreran, lepoan tiro bat jo ondoren. Lekukoen artean, Antsoaingo alkatea zegoen.

**Prozedura:** Pistolarekin buruan jo ondoren, tiro egin zioten.

**Datu gehigarriak:** Udalbatzar batean, Iruñeko udalak segurtasun-indarren jokabidea gaitzestea erabaki zuen (*El País*, 1978/01/04). Kasu horri aldeko irizpena eman dio Eusko Jaurlaritzak sortutako Balioespen Batzordeak, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 8

# Joseba Barandiaran Urkola

**Data:** 1978/07/11.

**Adina:** 19 urte.

**Non jaioa:** Astigarraga (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Nuklearren aurkako Batzordeetako kidea izan zen.

**Egilea:** Polizia Armatua.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Aldapetako San Bartolome kalean, Iruñeko San Ferminetan German Rodriguez hil izana salatzeko antolatutako manifestazioan parte hartzen ari zela.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Eusko Kontseilu Nagusiak poliziaren jokabidea salatu zuen, eta gertakariei buruzko komunikatu baten berri eman zuen. Komunikatua El País egunkariak argitaratu zuen, 1978ko uztailaren 12an. Eusko Jaurlaritzaren aitortza jaso du, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuaren bidez.

# 9

# Gladys Del Estal Ferreño

**Data:** 1979/06/03.

**Adina:** 23 urte.

**Non jaioa:** Caracas (Venezuela). Gerra ostean, familia Venezuelan erbesteratu zen.

**Bizilekua:** Egia auzoa, Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Kimika Zientziak ikasten ari zen. Enpresa txiki batean egiten zuen lan. Egiako talde ekologistako eta Nuklearren aurkako Batzordeetako kidea.

**Egilea:** Guardia zibila.

**Heriotza-lekua:** Tuteran (Nafarroa), Energia Nuklearraren eta Bardeetako tiro-eremuaren aurkako Nazioarteko Jardunaldietan. Bat-batean, polizia sartu eta tiroka hasi zen. Odolustuta hil zen, eserialdi baketsu batean parte hartzen ari zela buruan tiro bat jaso ondoren.

**Prozedura:** Su-armaz egindako atentatua.

**Datu gehigarriak:** Xehetasun gehiago jakiteko, jo Relatos de Plomo (Nafarroako Gobernua, 2013, 198. or.) liburura.

# 10

# Iñaki Kijera Zelarain

**Data:** 1979/09/01.

**Adina:** 18 urte.

**Non jaioa:** Antiguo auzoa, Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Ikaslea.

**Egilea:** Manifestazio batean parte hartzen ari zela, Istiluen aurkako Taldeko polizia batek tiro bat jota.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Ijentea kalean.

**Prozedura:** Su-armaz egindako tiroa.

**Datu gehigarriak:** Lekukoen arabera, 15 minutu eman zituen lurrean zaurituta, eta inori ez zioten laguntzen utzi. El Pais egunkariak honela kontatu zuen 1988/10/05ean: “1988ko urriaren 4an izan zen epaiketan, zuhurtziagabekeriazko giza hilketaren delitua egotzi zion fiskalak tiroa egin zuenari, izan ere, poliziak, bere bertsioaren arabera, ez zekien tiro egiteko benetako jaurtigai bat zegoela pilotak jaurtitzeko fusilean berak sartu zituen hiru kartutxoen artean. (…) Iñaki Kijera ezkerreko hemitoraxean jo zuen berreskuratu ez den bala batek eta birika alderik alde zulatu eta saihetsak hautsi zizkion. (…) Istiluei aurre egiteko unitatearen burua zen kapitainak, bestalde, adierazi zuen “itsu batek ere” bereizi ditzakeela jaurtigairik gabeko kartutxo bat eta tiro egiteko benetako kartutxo bat; baieztapen horretan oinarrituta, zalantzan jarri zuen akusazio partikularraren abokatuak, Miguel Castells-ek, fiskalaren tesia”.

# 11

# Esteban Muruetagoiena Scola

**Data:** 1982/03/28.

**Adina:** 38 urte.

**Non jaioa:** Ondarroa (Bizkaia).

**Bizilekua:** Oiartzun (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Alaba bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Mediku titularra Oiartzunen.

**Egilea:** Autopsiaren arabera, gorpuak hainbat zauri eta ubelune zituen, bai eta elektrodoekin egindako erredura ugari ere. Terrorismoaren aurkako Legea aitzakiatzat hartuta, bederatzi egun eman zituen Madrileko polizia-dependentzietan, nahiz eta kargurik gabe libre utzi zuten.

**Heriotza-lekua:** Donostian, amaren eta izeba-osaben etxean, komisaldegitik atera eta hiru egunera.

**Prozedura:** Ustez, torturengatik.

**Datu gehigarriak:** Hainbat taldek salatu zuten kasua: Amnesty Internationalek, Parisko Mediku Elkargoak eta Frantziako Mediku Elkargoak, besteak beste.

# 12

# Mikel Zabalza Garate

**Data:** 1985/12/15.

**Adina:** 32 urte.

**Non jaioa:** Orbaitzeta (Nafarroa).

**Bizilekua:** Altza, Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako autobus-konpainiako langilea. ELAko kidea.

**Egilea:** Guardia Zibilak bizirik atxilotu zuen, eta familiari hilkutxa baten barruan itzuli zioten gorpua.

**Heriotza-lekua, prozedura eta datu gehigarriak:** Altzan atxilotu zuten, eta 1985eko azaroaren 26an Intxaurrondoko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zuten. Guardia Zibilaren arabera, atxiloturik zegoela, eta galdeketa egin ostean, ihes egitea lortu zuen, hiru guardia zibilen zaintzapean eskuburdinak jarriak zituela Endarlatsatik gertu (Bidasoa ibaiaren ondoan) zulo baten bila ari ziren bitartean. Hogei egun geroago, bere gorpua ibaian agertu zen; Gurutze Gorriko urpekariek ia egunero arakatu zuten eremu hartantxe, hain zuzen. Bertsio horren aurka, Herriaren Defendatzaileak txosten bat aurkeztu zuen Kongresuan. Agente batek CESIDeko koronel bati emandako informazioen arabera, biktima kuartel barruan hil zen. “Eskuetatik joan zaie, galdeketan geratu da. Inoiz ez dute gertatutakoaren berri jakingo. Litekeena da bihotza gelditu izana, buruan plastikozko poltsa jartzearen ondorioz”. El Mundo egunkariko Manuel Cerdan eta Antonio Rubio kazetariek 1995eko urrian jakitera eman zutenez, zenbait guardia zibilen arabera, “baineraren tortura egin bitartean hil zen nafar gaztea”. Relatos de Plomo liburuak honela laburtzen du: “Denborarekin jakingo da Intxaurrondoko kuartelean itota hil zutela, bainera batean torturatzen zuten bitartean” (Nafarroako Gobernua, 2013, 558. or.).

# **I.** Bizitzeko eskubidearen **urraketak**

## 4. **Egiletza argitu gabe** duten urraketak **eta bestelakoak**

# 1

# Begoña Urroz Ibarrola

**Atentatuaren data:** 1960/06/27.

**Heriotza-data:** 1960/06/28.

**Adina:** 22 hilabete.

**Non jaioa:** Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

**Egilea:** DRIL (Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación). Talde hori Portugaleko eta Espainiako talde guevaristek osatzen zuten,eta Oliveira Salazar eta Francoren diktaduren aurka borrokatzea zuen helburu.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Amara auzoko geltokian, bonba su-eragile batek gorputzaren zati handi batean eragindako erredura larrien ondorioz. Hurrengo egunean hil zen.

**Prozedura:** Bonba su-eragile bat leherrarazita.

**Datu gehigarriak:** Atentatu berean, hauek zauritu ziren: Baleren Bakaikoa Azurmendi, Pascual Ibañez Martin, Francisco Sanchez Bravo, Maria Garcia Moras eta Soledad Arruti Etxegoien. Bi egun haietan, antzeko leherketak izan ziren Quinto eta Pina del Río artean, Bartzelonatik Madrilera zihoan tren baten bagoian, Madrileko, Bartzelonako eta Donostiako (Norte-Egia) geltokietako kontsignetan, eta dagoeneko aipatu dugun Donostiako Amara auzoko geltokiko kontsignan. Bost lehergailu. Kasu guztietan, bonba su-eragileak maleten barruan zeuden. Hilaren 29an beste lehergailu bat leherrarazi zuten Bilboko Atxuri geltokian. Duela gutxira arte, ez da atentatu horren berri eman ETAren biktimen zerrendetan. ETAk, baina, ekintza horiek guztiak inoiz ez ditu bere gain hartu. Bai, ordea, DRILek. Talde honetako 9 kide kasu honengatik epaitu zituzten. Ikertzaile eta historialari adituenen esanetan, garai hartan ETAk ez zuen inolako gaitasunik aldi berean sei atentatu egiteko. 2014an Barne Ministerioaren web-orria kontsultatu ondoren, ETAri egotzitako lehen atentatuak 1968koak dira. Gaur egun, aski frogatutzat jotzen da atentatu hura DRILek egin zuela.

# 2

# Mariano Roman Madroñal

**Data:** 1975/06/05.

**Adina:** 37 urte.

**Non jaioa:** Algodonales (Cádiz).

**Destinoa:** 20 urte zeramatzan Donostiako Komandantzian.

**Seme-alabak:** Hiru seme eta bi alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Guardia zibila.

**Egilea:** Istripua, lanean ari zela.

**Heriotza-lekua:** Añorga parean (Donostia).

**Prozedura:** Ustez ETAkoak ziren bi kide atxilotzen saiatu ziren bi guardia zibil, eta trenean tiroketa bat izan zen. Guardia zibiletako bat trenetik behera erori, buruan kolpea jo, eta hil egin zen. Beste guardia zibilak zauriak izan zituen begi batean, treneko leihoetako bateko kristalak hautsi izanaren ondorioz.

**Datu gehigarriak:** Vidas Rotas liburuko zerrendan ageri da kasua (56. or.); honela dio: “Bi guardia zibilak ateetan kokatu ziren, terroristek alde egiteko modurik izan ez zezaten. Egoera horretan zeudela, Mariano Roman Madroñal airean atera zen, eta berehala hil zen”. Gauza bera kontatzen da Libertad Digital egunkariko “In Memoriam” izeneko blogean: “ETAko kideek Errekaldeko geltokian alde egingo zutelakoan,bi guardia zibilak konboiaren alde banatan jarri ziren. Zoritxarrez, Roman Madroñal airean atera zen, eta erori eta garezurra hautsi zuen. Une hartantxe hil zen”. Jose Mª Callejaren eta Ignacio Sanchez-Cuencaren iritziz, “argi dago ETAko kiderik ezean bi guardia zibilak ez zirela hilko. Hala ere, gure ustez, hori ez da arrazoi nahikoa ETAren biktimatzat hartzeko” (La derrota de ETA, 179. or.). Beren zerrendatik kanpo gelditzen da kasua. Barne Ministerioak, ordea, terrorismoaren biktimatzat hartzen du.

# 3

# Eduardo Moreno Bergaretxe

**Desagertu zeneko data:** 1976/07/23.

**Adina:** 26 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Seme-alabak:** Ez zuen seme-alabarik.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** ETApm-ko buruzagia. 1975ean, Bilbon, Poliziaren eskuetatik ihes egin zuen. Beste batzuekin batera, Otsagabia txostena idatzi zuen. Enpresa Zientziak ikasi zituen Donostiako EUTGn.

**Egilea:** Egoera nahasiak.

**Heriotza-lekua:** Ezezaguna.

**Prozedura:** Bahiketa eta desagerpena. Gorpua ez da agertu.

**Datu gehigarriak:** Bahiketa bere gain hartu zuen Triple Ako Antonio Guezala komandoak. ETAk 1978an hildako Jose Maria Portell kazetariaren arabera, familiakoek ere horixe berretsi zuten. Izan ere, "zenbait kontakturen ostean", Pertur desagertu eta egun gutxira salaketa bat jarri zuten. Salaketan esaten zutenez, "Pertur eskuin muturreko kideek bahitu zuten". Bahiketa gertatu eta urte eta erdira, ordea, 1978ko urtarrilaren 20an, familiak beste bertsio bat eman zuen. Bertsio berriaren arabera, baliteke bahiketaren egileak Bereziak taldeko kideak izatea, ETApm-ren barruan Perturrek defendatzen zituen iritzien aurkakoak baitziren. Guardia Zibilaren zuzendari nagusi izandako Jose Antonio Saenz de Santamaria teniente-jenerala, ordea, beste iritzi batekoa da. 1998ko abuztuaren 3an El Mundo egunkariko Fernando Lazaro kazetariak egindako elkarrizketa batean, honela zioen Saenz de Santamaria jeneralak: "Ez da komeni iragana dantzaraztea, baina gertatutakoak mugiezinak dira, eta Mareyren bahiketak ez dizkigu aurretik gertatutako hainbat kasu ahantzarazi behar: Almería, Cubillo, Montejurra, Argala, Pertur… Espainiaren hobe beharrez, ez da komeni kasu horiek ikertzea, baina ez ahaztu horiek ere hor daudela". 2008ko maiatzean, gurasoek Auzitegi Nazionalera eraman zuten kasua, berriro ere Perturren bahiketa ikertzen has zitezen. Urte berean kereila onartu, eta Fernando Andreu epaileak hiru bide ikertu zituen: batetik, Pertur hil zutenak bere kideak izatea; bestetik, Pertur eskuin muturreko taldeek hil izana; eta, azkenik, Espainiako zerbitzu sekretuek hala eskatuta, Italiako talde neofaxistek hil izana (El Correo, 2008/06/28). Delituak ez du preskribitu, gorpua ez baita inoiz aurkitu, baina Auzitegi Nazionalak 2012ko irailean artxibatu zuen ikerketa, ez baitzuten arrastorik aurkitu ez ETApm-ko Bereziak taldearen aurka, ez Triple Aren aurka, eta ez Italiako talde neofaxisten aurka.

# 4

# Juan Caballero Porral

**Gorpua aurkitu zuteneko data:** 1986/06/01.

**Adina:** 84 urte.

**Non jaioa:** Gibraltar.

**Bizilekua:** Donostiako Gros auzoko Ramón María Lilí kalea.

**Seme-alabak:** Bi seme-alaba.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Abokatua. Beste batzuekin batera, El Diario Vasco egunkaria sortu zuen.

**Egilea:** ?

**Heriotza-lekua eta Prozedura:** Libertad Digital egunkariaren arabera, Caballeroren gorpua "bere etxeko logelan aurkitu zuen noizean behin laguntzera joaten zitzaion erizainak. Pijama zeraman jantzita, eta bizikleta-kate batekin estu loturik zituen eskuak". Hedabide horretan esaten denez, ETA aurrez saiatua zen biktimaren semeetako bat bahitzen, semeak aitaren etxean bertan bulegoa konpartitzen baitzuen. Bigarren saiakera honetan, bahitzaileek aita aurkitu zuten etxean, eta erasotzaileekin borrokan aritu ondoren, hil egin zuten. Dena dela, inoiz ez da gertaera argitzeko modurik izan.

**Datu gehigarriak:** ETAk ez du inoiz hilketa hau bere gain hartu. Bestalde, Juan Caballero ez da inongo zerrendatan ageri: ez AVTrenetan, ez Vidas Rotas liburuan, ez ABC egunkariaren "Talde terroristaren biktima guztiak" gehigarrian, ez COVITEren zerrendetan, ez Eginen, ez Calleja eta Sanchez-Cuencaren La derrota de ETA liburuan, ez Arartekoaren Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta txostenean... Hala ere, 2000ko azaroaren 14an, Barne Ministerioak, 2.260 Ebazpenaren bidez, Juan Caballero Porral "terrorismoaren biktimatzat" hartu zuen.

# 5

# Ángel Portugal del Álamo

**Data:** 1997/02/13.

**Adina:** 55 urte.

**Bizilekua:** Pasai Antxo.

**Seme-alabak:** Bi alaba eta seme bat.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Donostiako autobus-gidaria.

**Egilea:** Argitu gabe.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Poliklinikan.

**Prozedura:** Bihotzekoak jota hil zen.

**Datu gehigarriak:** Espainiako Barne Ministerioak biktima bezala errekonozitu zuen. Ez da biktima moduan agertzen ez *Vidas Rotas*en ez Calleja eta Sánchez-Cuencaren *La derrota de ETA*n, ez Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren (FVT) zerrendan, ez *El País*en “Las víctimas”en, ez Pulgarren ikerketa-lanean ez *Egin*en. Bi salbuespen daude ETA erantzule egiten dutenak: *ABC Especiales* eta AVT, beste informaziorik gabe. COVITEk “beste batzuei” leporatzen die. Egileak “zehaztu gabe” daudela aipatzen da Arartekoaren 2009ko Txostenean. Informazioa mugatuta dagoenez, zaila da datu gehiago eskuratzea. Zenbait iturrien arabera bere heriotzak zerikusia izan zuen gidatzen zuen autobusaren kontrako kale borroka eraso batekin.

# 6

# Aitor Zabaleta Kortazar

**Gertakarien data:** 1998/12/08.

**Heriotzaren data:** 1998/12/09.

**Adina:** 28 urte.

**Non jaioa:** Donostia (Gipuzkoa).

**Seme-alabak:** Seme-alabarik gabe.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Real Sociedad futbol-taldearen jarraitzailea.

**Egilea:** Bastion taldeko zenbait kide.

**Heriotza-lekua:** Vicente Calderón Atlético de Madrid futbol-taldearen zelaiaren inguruan, Espainiako hiriburuan. Bederatzi ordu beranduago hil zen ospitalean.

**Prozedura:** Arma zuri bidezko atentatua. Bularrean labana batekin sastatua.

**Datu gehigarriak:** Aitor Zabaletaren heriotzaren errudun egin zuen epaiak Bastion taldeko kidea zen Ricardo Guerra Cuadrado. 40. Instrukzio-Epaitegirako 834/99-A zenbakiko Prozedura Laburtuaren seigarren puntuan adierazten da: "erabakiorra izan zen akzio kriminalerako erasotuak euskal heritarrak izatea". Intolerantziaren aurkako Mugimendua ildo berdinetik mintzatu zen: "aurkako taldea eta haren jarraitzaileak euskaldunak zirela eragingarri ideologiko ultrarekin (…), Euskal Herriaren aurkako mespretxuzko oihuak ozen adieraziz". Aitor Zabaletaren bi anaiek Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Batzordearen aurrean aitortu zuten –2000ko azaroko Indarkeriaren Biktimen Ponentzian jasoa, 212.orr.– erasotzailearen oihua zela "euskaldunak akabatzea". 1998/12/09 eguneko El País egunkariak dioenaren arabera, "erasoa gertatu eta handik ordu betera (…) Atlético de Madrid futbol-taldeko 200en bat jarraitzaileek 'Viva España' kantatzen zuten keinu mehatxatzaileekin edo 'etarra hiltzaileak' oihukatzen zuten etengabe". 2012/06/01 eguneko ABC egunkariak kategorikoki berresten zuen Guerrak "Zabaleta sastakatu zuela euskaduna eta Realeko jarraitzailea zelako, besterik gabe".

# **II.** Behar beste argitu ez diren **kasuak**

# 1

# Vicente Lertxundi Mayoz

**Data:** 1962/12/27.

**Adina:** 50 urte.

**Bizilekua:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Anarkista. Aurrez ere atxilotua izan zen; esate baterako, 1955an, Bermeon. Bertan, polizia frankistak jipoi galanta eman zion, eta, besteak beste, txakurrek kosk egin zioten atxilotzerakoan.

**Egilea:** Martuteneko espetxetik larri zaurituta atera ondoren hil zen.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Martutene eta Loiola artean dagoen Txomin auzoko bizilagunek hilzorian aurkitu zuten, Martuteneko espetxetik gertuen dagoen etxearen ondo-ondoan, eta ospitalera eraman zuten. Ospitalean bertan hil zen.

**Datu gehigarriak:** Argibide urria eta bertsio kontrajarriak dituen kasua da. Bere heriotzari buruzko bi bertsio daude. Bertsio ofizialak zioenez, bihotzeko minez kartzelako erizaindegira eraman ostean, egun horretan bertan espetxetik atera zuten. Familiaren kontaketaren arabera, bihotzeko minez zegoen, bai, eta horregatik atera zuten espetxetik, baina espetxean jasotako jipoiak eragindakoa zen mina. Bizilagunek adierazi zutenez, hilzorian egon arren, biktimak hauxe esan omen zuen birritan: “Hil egin naute, hil egin naute” (Irutxuloko Hitza, 2011/06/07).

# 2

# Rosa Zarra Marin

**Gertakarien data:** 1995/06/22.

**Heriotza-data:** 1995/06/30.

**Adina:** 58 urte.

**Non jaioa:** Donostiako Alde Zaharrean.

**Bizilekua:** Donostiako Amara auzoa.

**Seme-alabak:** Hiru alaba eta hiru seme.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Etxekoandrea.

**Egilea:** Bi bertsio: batetik, berezko heriotza; bestetik, pilotakada baten ondorioz.

**Heriotza-lekua:** Donostiako Arantzazuko Ama Ospitalean,

**Prozedura:** Bihotz-gelditze baten ondorioz, Amara auzoko elkarretaratze batean Ertzaintzak jaurtitako gomazko pilotakada bat jasotzean zauriturik gertatu eta zortzi egunera.

**Datu gehiago:** Kasu honetan bi bertsio daude. Rosa Zarrak gomazko-pilotakada bat jaso zuen sabelean. Ospitalera eraman zuten eta ubeldu bat ikusi zitzaion sabelaldean. Medikuek ez zuten beharrezkotzat jo ospitaleratzea. Lau egun igaro ondoren, min handiekin ospitaleratu egin zen; eta haren egoera larriagotu egin zen. Gangrena baten ondorioz heste zati bat erauzi zitzaion. Hiru egun gehiago egon zen koman, eta 1995-06-30ean hil zen. Donostiako Auzitegiko eta Toxikologiako Institutu Nazionaleko forentseak ados zeuden heriotzaren arrazoiarekin: heriotza naturala izan zen. Donostia Ospitaleko nefrologia-zerbitzuko Alex Elosegik (bera izan zen Rosa Zarraren medikua aurreko urtetan) agiri bat bidali zuen prentsara, eta hartan esaten zenez, “gertaerak nola izan ziren ikusirik, guztiz normala da pentsatzea pilotakada izan zela Rosa hil zuena. Kolpeak tronbosi bat eragin zion arterietan, eta horrek, batetik, kolona zulatu zion, eta, bestetik, shock septiko bat eragin. Kontuan hartu behar da, gainera, Rosa Zarrak erabat eskastuak zituela defentsa-mekanismoak, giltzurruna transplantatu ondoren ezinbestez jarraitu behar zuen tratamenduaren ondorioz”. Kasua instruitu zuen epaileak eginbideak artxibatu zituen, heriotza naturala izan zela uste zuelako. 1995-09-19ko autoan jarduketak artxibatzeko agindu zen. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ebazpena berretsi zuen, ez baitzegoen kausazko loturarik gomazko pilotak eragindako traumatismoaren eta heriotzaren artean.

# 3

# Maria Francisca Eraunzetamurgil Alkorta

**Data:** 2001/08/20.

**Adina:** 62 urte.

**Non jaioa:** Donostia.

**Lanbidea, kargua, bestelakoak:** Erretiratua.

**Egilea:** ?

**Heriotza-lekua:** Donostiako Alde Zaharreko Txioka tabernaren jabeak jostailuzko auto bat aurkitu zuen bainugelan, eta langileetako bati eman zion opari. Hilaren 20an lana bukatu, eta langilea amarekin, ahizparekin eta bi ilobekin batera etxerantz zihoala, Donostiako Aldamar kalean, amona autoa irekitzen saiatu zen, besoetan 16 hilabeteko eta 4 urteko bilobak zituela. Horretan zebilela, autoa martxan jarri zen, eta pieza batek Maria Francisca amonaren lepoa ebaki zuen. Amona odolusturik hil zen, eta bi bilobak larri zauritu ziren.

**Prozedura:** Jostailu-bonba bat. Bolboraz betetako auto bat, sistema elektriko baten bidez leherrarazteko prestatua.

**Datu gehigarriak:** Jostailu-bonbak larri zauritu zuen 16 hilabeteko Jokin Galarraga haurra (itsu gelditu zen), bai eta haren anaia Pello ere, 4 urtekoa. Ezker abertzaleak “gerra zikina” aipatu zuen, eta manifestazioak antolatu zituen. Mariano Rajoy presidenteorde eta barne-ministroak, aldiz, “kale-borrokari” egotzi zion. AVTk, COVITE eta ABC Especiales gehigarriak ETAren biktimatzat hartu zuten hildakoa. Familiak beren minarekin alderdikeriaz jokatu izana gaitzetsi zuen. Azkenik, Ertzaintzaren ikerketek “arrazoi politikoak” baztertu zituzten. Gaur egun, kasuak argitzeke jarraitzen du.

# Erabilitako iturri eta zerrendak


- ABC: *ABC Especiales*, *Todas las víctimas del terror*, www.abc.es/especiales/eta/victimas

- Alonso, Rogelio, Florencio Domínguez y Marcos García Rey, *Vidas rotas. Historia de los hombres, mujeres y niños víctimas de ETA*, Espasa, Madril, 2010.

- Arartekoa: *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta*, Eusko Legebiltzarrari egindako txosten berezia, 2009ko ekaina.

- Argituz (Giza Eskubideen Aldeko Elkartea), www.argituz.org

- Arovite, Valentin de Foronda Gizarte Historiarako Institutua (UPV-EHU). www.arovite.com/bases-de-datos/

- AVT (Terrorismoaren Biktimen Elkartea). www.avt.org

- Barne Ministerioa. www.interior.gob.es/

- Calleja, Jose Maria; Sanchez-Cuenca, Ignacio: *La derrota de ETA. De la primera a la última víctima*, Adhara, Madril, 2006.

- Covite (Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkartea). www.covite.org

- Egin: *Anuarios 1977-1982* eta *Anuarios 1982-1997*.

- El Correo. http://especiales.elcorreo.com/2006/eta/index.html

- El País: *Las Víctimas*. www.elpais.com/especial/eta/victimas.html

- Euskal Memoria Fundazioa: *Datu-basea*. www.euskalmemoria.com

- Eusko Jaurlaritza. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es/

- Fernando Buesa Blanco Fundazioa (dokumentazio- eta ikerketa-zentroa). www.fundacionfernandobuesa.com

- Fonseca, Carlos (koord.). 1960. eta 2014. *urteen artean hildakoak eragindako erakunde terroristen atentatuen auzibideari buruzko txostena. Euskal kasua*. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina. Eusko Jaurlaritza. 2014ko abendua.

- Giza Eskubideen Zuzendaritza: *Motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-subpaz/es

- Juan March Fundazioa. Espainiako trantsizioari buruzko Linz artxiboa. CEACS. www.march.es/ceacs/biblioteca/proyectos/Linz/

- Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentaziogunea. www.lbfundazioa.org

- Libertad Digital: *In Memoriam: No olvidar lo inolvidable.* www.blogs.libertaddigital.com/in-memoriam/

- Marrodan, Javier; Araluce, Gonzalo; Garcia de Leaniz, Rocio; Jimenez, Maria: *Relatos de plomo. Historia del terrorismo en Navarra 1960-86*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2013.

- Nuñez, Luis (koord.): *Euskal Herria y la Libertad* (8 lib.), Tafalla, Txalaparta, 1993.

- Pulgar Gutierrez, Belen: *Víctimas del Terrorismo: 1968-2004*, Madril, Dykinson, 2004.

- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa. www.fundacionvt.org

- Terrorismoaren Biktimen Fundazioa: *Asesinatos de ETA en Álava*. www.alava.net

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza: *Kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimei buruzko txostena*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2008. www.interior.ejgv.euskadi.net/r42440/es/contenidos/informacion/informacion_documentos_interes/es_document/adjuntos/informe%20final.pdf

- Vasco Press Agentzia: “Crónica de documentación y actualidad”, 1.176. alea, 2004ko abuztua.

- Zenbait egunkari: *ABC, Berria, Deia, Diario de Noticias, Egin, El Correo, El Diario Vasco, El Mundo, El País, Euskaldunon Egunkaria, Gara, Hitza, La Razón, La Vanguardia, Noticias de Alava, Noticias de Gipuzkoa*.

**DRIL kasua:**

- Sotomayor, Jorge de: *Yo robé el Santa María*, Madril, Akal, 1978 (Sotomayorren egiazko izena hauxe zen: Jose Fernando Fernandez Vazquez).

- Suarez Fernandez, Luis: *Francisco Franco y su tiempo*, VI. liburukia, Madril, Francisco Franco Fundazio Nazionala.